

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

HAUR HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK ADIMEN GAITASUN HANDIKO UMEEN AURREAN

ERANSKINAK

Egilea: Ainize Santisteban Martín

Zuzendaria: Inge Axpe Saez

Leioan, 2019ko maiatzaren 30ean

AURKIBIDEA

1. Eranskina: uste okerrak.....	2
2. Eranskina: galdeketak.....	3
3. Eranskina: elkarrizketarako galderak.....	6
4. Eranskina: elkarrizketarako baimena.....	7
5. Eranskina: elkarrizketak.....	8
5.1. Irakasleak.....	8
Lehenengo elkarrizketatua.....	8
Bigarren elkarrizketatua.....	13
Hirugarren elkarrizketatuta.....	17
Laugarren elkarrizketatua.....	20
Bostgarren elkarrizketatua.....	27
5.2. Adituak.....	32
Seigarren elkarrizketatua.....	32
Zazpigarren elkarrizketatua.....	37
Zortzigarren elkarrizketatua.....	43
Bederatzigarren elkarrizketatua.....	47
Hamargarren elkarrizketatua.....	54

1. Eranskina: uste okerrak.

Jarraian AGHko ikasleen uste okerrak agertzen dira, baita honen errealitatea ere.

Taula 1. Uste okerrak

USTE OKERRAK	ERREALITATEA
Ezaugarri pertsonal eta sozialak	
<ul style="list-style-type: none"> • Liderrak dira. • Moldatu-gabeak dira. • Isolatu egiten dira. • Barnerakoiak dira. • Desoreka psikologikoak izateko joera dute. • Irakasleekiko erlazioetan arazoak dituzte. • Haien garapen emozionala defizitariora da. • Lagun helduagoak bilatzen dituzte. 	<p>Talde heterogeneoa da. Pertsona guztiek bezala, bere nortasunaren eta egoeraren arabera, era batean edo beste batean maneiaturako dituzte haien emozioak eta harremanak.</p> <p>Liderrak izan daitezke edo ez.</p> <p>Talentu logiko, matematiko eta akademikoko ikasleek, eta goiztiartasunarekin, komunikaziorako arazo gehiago erakuts ditzakete.</p>
Errendimendu akademikoa	
<ul style="list-style-type: none"> • Errendimendu bikaina erakusten dute Curriculumeko alderdi guztietan. • Eskolan porrot egiten dute. • Beti aspertzen dira. • Soilik interesatzen zaienean etekina ateratzen dute. • Gai guztietarako motibatuak daude. • Ezagutza sakonak izan behar dituzte Curriculumeko eremu guztietan. • Ezin dira erratu. • Gehiago eskatu behar zaie. • Geldiarazi behar ditugu. 	<p>Errendimendua motibazioari oso lotuta dago. Nahiz eta errendimendu akademiko altua espero talentu akademiko altua duten ikasleengan, eta goiztiarretan, haiek ere motibazioa eta interesa galdu ditzakete.</p> <p>AGHko haurrak ez du zertan errendimendu bikaina izan behar arlo guztietan. Guztiek ez dute errendimendu baxua erakusten ezta motibazio gutxi ere.</p> <p>AGHko haurrak ikasketetan zailtasunak erakuts ditzakete.</p>
Esku-hartzea	
<ul style="list-style-type: none"> • Ez dute laguntzarik ezta neurri espezifikorik behar. • Laguntza psikologikoa behar dute. • Guztia jakin behar dute. • Irakasle espezifikoen ardurapean egon behar dira. 	<p>AGHko haurrak ez identifikatzeak motibazio eza, depresioa eta eskola-fobia eragin ditzake.</p>

Iturria: Cordero, 2017.

2. Eranskina: galdeketak.

Jarraian bai irakasleek bai familiek erabil ditzaketen galdeketak agertuko dira. Garrantzitsua izango da biak (eskola eta familia) betetzea; horrela, balioespena orekatuagoa izango da.

Hasteko, Pérez (in Gómez eta Mir, 2011) bi galdetegi eskaintzen ditu (ikus 2. eta 3. taulak), adin tarte ezberdinetakoak. Lehen adin tarterako (3-4 urte), emaitzak 125 puntu baino altuagoa bada, egokia izango litzateke espezialista batek AGHko haurra den ala ez egiaztatzea. Bigarren adin tarterako (5-8 urte), haurren emaitza 75 puntu baino altuagoa bada, berdin jokatu beharko da. Beraz, tutoreak edota familiak lortutako puntuazioak gehituko ditu.

AGHko detekziorako galdeketa: 1 → inoiz edo ia inoiz ez da antzematen; 4 → gradu handienera agertzen da.

Taula 2. Hiru eta lau (3-4) urte bitarteko AGHko detekziorako galdeketa.

1	Era azkarrean eskuratzen eta gordetzen du informazioa.	1	2	3	4
2	Erraztasuna erakusten du kontzeptuak eskuratzeko.	1	2	3	4
3	Hiztegi zabala du.	1	2	3	4
4	Bere adinerako Konplexuak diren gaiet buruzko informazio asko du.	1	2	3	4
5	Azalpenak azkar ulertzen ditu.	1	2	3	4
6	Jarrera aktiboa erakusten du ikasketen aurrean.	1	2	3	4
7	Jakin-mina erakusten du inguruan duen guztiagatik eta galdera asko egiten ditu.	1	2	3	4
8	Irudimena eta sormena erakusten du bere ekoizpenetan.	1	2	3	4
9	Bakarrik lan egiteko eta jolasteko joera du.	1	2	3	4
10	Taldea antolatzeko joera du.	1	2	3	4
11	Umore-sena erakusten du.	1	2	3	4
12	Kontzentrazio-aldi luzeak ditu.	1	2	3	4
13	Konstantea eta iraunkorra da interesatzen zaizkion zereginetan.	1	2	3	4
14	Perfekzionista da.	1	2	3	4
15	Errutinazko jardueren aurrean aspertzen da eta ez ditu egin nahi.	1	2	3	4
16	Hizkuntza aberatsa eta zehatza erabiltzen du.	1	2	3	4
17	Ez-ohiko konponbideak ematen ditu arazoetarako aurrean.	1	2	3	4
18	Bere adinekoak ez dute ondo onartzen.	1	2	3	4
19	Bere gaitasuna soilik interesatzen zaizkion jardueretan erakusten du.	1	2	3	4
20	Bera baino nagusiagoak diren haurrekin jolastea nahiago du.	1	2	3	4
21	Gauzak nola eginda dauden eta nola funtzionatzen duten jakin nahi du.	1	2	3	4
22	Erraztasunez aspertzen da.	1	2	3	4
23	Hiru, lau edo bost objektu ematen daki.	1	2	3	4
24	Nagusientzako jarduerak egitea nahiago ditu.	1	2	3	4
25	Ez ohiko memoria du.	1	2	3	4
26	Arreta denbora luzez mantendu dezake.	1	2	3	4
27	Goiz hasten da hitz egiten.	1	2	3	4

28	Ezagutza batzuk barneratzen ditu zuzeneko azalpenik gabe.	1	2	3	4
29	Interes anitzak ditu.	1	2	3	4
30	Autokontzeptu positiboa duela dirudi.	1	2	3	4
31	Lanetan ahalmen handia erakusten du eta neke-maila baxua.	1	2	3	4
32	Oso lehiakorra da.	1	2	3	4
33	Helduekin erlazio ona mantentzen du.	1	2	3	4
34	Jolasetan liderraren papera adierazten du.	1	2	3	4
35	Heldugabe azaltzen da ezagutza-area batzuetan.	1	2	3	4
36	Transferentziak egiten ditu edo gauzen arteko erlazioak erraztasunez aurkitzen ditu.	1	2	3	4
37	Jokoak asmatzea atsegin du.	1	2	3	4
38	Objektu mekanikoak muntatu edo desmuntatu ditzake.	1	2	3	4
39	Haserre-erreakzioak ditu, hau da, aurkakotasunen aurrean haserrealdia erakusten du.	1	2	3	4
40	Bere sentimenduen kontzientzia du.	1	2	3	4
41	Lau (4) piezako buruhausteak eraiki ditzake.	1	2	3	4
42	Idatzizko letrak eta zenbakiak identifikatzen ditu.	1	2	3	4
43	Zirkulua, karratua eta triangelua kopiatzen ditu.	1	2	3	4
44	Bost (5) objektu gehitu ditzake.	1	2	3	4
45	Lau (4) zifra gogoratzeko gai da.	1	2	3	4
46	Hiru (3) agindu aldi berean betetzen ditu.	1	2	3	4
47	Arazo erraza (kenketa) ebazten daki.	1	2	3	4
48	Desberdintasunak aitortzen ditu bi objektuen artean kolorea, forma eta neurriagatik.	1	2	3	4
49	Marrazki osatugabe batean falta dena antzematen du.	1	2	3	4
50	Autonomoa da.	1	2	3	4

Iturria: Pérez, 2006, in Gómez eta Mir, 2011.

Taula 3. Lau eta zortzi (4-8) urte bitarteko AGHko detekziorako galdeketa.

1	Gauza berriak ikasteko jakin-mina erakusten du.	1	2	3	4
2	Azalpenak bizkor ulertzen ditu.	1	2	3	4
3	Ulermen orokorra izaten du.	1	2	3	4
4	Zereginetan iraunkorra da.	1	2	3	4
5	Ohiz kanpoko oroimena du.	1	2	3	4
6	Hiztegi aberatsa du.	1	2	3	4
7	Ez du arreta goiztiarrik jaso.	1	2	3	4
8	Pazientzia gutxi dauka.	1	2	3	4
9	Bere adinerako oso heldua da.	1	2	3	4
10	Erantzun miresgarriak eta ezustekoak ematen ditu.	1	2	3	4
11	Bidalitako zeregina bukatzean, lehenetarikoa da.	1	2	3	4
12	Inork espero ez dituen galderak egiten ditu.	1	2	3	4
13	Eteten diotenean haserretzen da.	1	2	3	4
14	Oso sentibera da porrotaren eta ulertezinaren aurrean.	1	2	3	4
15	Trebetasun artistikoak ditu.	1	2	3	4

16	Trebetasun motoreak ditu area batzuetan.	1	2	3	4
17	Bere motrizitatea bikaina da.	1	2	3	4
18	Helduekin ondo harramantzen da.	1	2	3	4
19	Ikasle nagusiagoekin erlazionatzea atsegin du.	1	2	3	4
20	Oso ondo azaltzen ditu ipuinak eta istorioak.	1	2	3	4
21	Ikasketetan zehar jarrera aktiboa erakusten du.	1	2	3	4
22	Kontzentrazio-aldi luzeak ditu (motibazioa sortzen dioten jardueretan).	1	2	3	4
23	Bere lanetan sormena eta irudimena ikusten da.	1	2	3	4
24	Gai konplexuen inguruan informazioa dauka.	1	2	3	4
25	Gauzen arteko erlazioak erraz aurkitzen ditu.	1	2	3	4

Iturria: Pérez (moldatua), 2006, in Gómez eta Mir, 2011.

Aurretik aipatutako bi galdetegiez gain, beste batzuk ere aurki daitezke Haur Hezkuntzako haurren gaitasun handiak neurtzeko (ikus 4. taula).

Taula 4. Adimen orokorreko proba estandarizatuak eta gaitasun espezifikoak.

Izenburua / egilea	Adin-tarteak
Escalas Wechsler: WPPSI-III, WPPSI-IV, Wisc-R, Wisc-IV, WAIS, (D. Wechsler, 1977-1999).	2 urte eta 6 hilabetetik 7 urte eta 3 hilabetera. 3-6 urte. 5-16 urte.
Test de inteligencia no verbal TONI-2, apreciación de la habilidad cognitiva sin influencia del lenguaje, (Brown et al, 1990/1995).	Adin guztietarako.
Escalas de aptitudes intelectuales BAS-II, (Colin D. Elliott, 2001).	2 urte eta 6 hilabeteetatik 17 urte eta 11 hilabeteetara.
Batería de evaluación de Kaufman para niños (K-ABC), (Kaufman eta Kaufman, 2004).	2 urte eta 6 hilabeterik 12 urte eta 6 hilabetera arte.
Terman-Merril (Terman eta Merrill, 1975).	2 urtetik helduarora arte.
Escala de inteligencia Stanford-Binet preescolar (Gale H. Roid).	2 urtetik 7 urteetara.
Escala de inteligencia Stanford-Binet 5.edizioa (Gale H. Roid).	2 urtetik helduarora arte.
MSCA (Escalas McCarthy de Aptitudes y Psicomotricidad para niños), 8. Edizioa.	2 urte eta 6 hilabetetik aurrera.
K-BIT, test breve de inteligencia, (Kaufman eta Kaufman, 2000).	4 urtetik helduarora arte.

Iturria: Baena, 2017.

3. Eranskina: elkarrizketarako galderak.

Elkarrizketarako prestatu diren galderen ereduak.

Identifikazioa

- 1) Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?
- 2) Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?
- 3) AGHko haur bat identifikatzen dakizu?
- 4) AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?
- 5) Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?
BAI → zuk detektatu duzu edo aurretik diagnostikoa zuen?

Prestakuntza

- 6) Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.
 - Prestakuntza jasotzen duzue? Nork ematen du?
 - Prestakuntza gehiago beharko zen? Zein motatakoa? (hasierako prestakuntza, detekzioa eta identifikazioa, esku-hartzea, metodologia, ebaluazioa).

Eskolan ematen den trataera

- 7) Ikastetxean, nola detektatzen dituzue haur hauek?
- 8) Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)
- 9) Nork esku-hartzen du ikasle hauekin? (tutoreak, arloetako irakasleak, aholkulariak, laguntzako irakasleak...).
- 10) Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?
- 11) Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiela hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?
- 12) Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?

4. Eranskina: elkarrizketarako baimena.

Elkarrizketatuek sinatu duten baimena.

ELKARRIZKETARAKO BAIMENA

Nire izena Ainize Santisteban da, Haur Hezkuntza Graduako 4. mailako ikaslea naiz, eta Gradu Amaierako Lana (GRAL) Adimen Gaitasun Handien haurren inguruan egiten ari naiz Bilboko Hezkuntza Fakultateko Inge Axpe (inge.axpe@ehu.eus) tutorearekin. Elkarrizketa hau nire Gradu Amaierako Lana burutzeko da.

Haur Hezkuntzako ikasgelan Adimen Gaitasun Handiko haurrei zelan lagundu ahal zaien aztertzea eta etorkizuneko irakasle moduan zelan jokatu daitekeen hobeto jakiteko bideratuta dagoen elkarrizketa da; soilik helburu akademikoa duena. Zure erantzunak oso baliagarriak izan daitezke etorkizuneko ikasleentzat.

Elkarrizketa boluntarioa da eta zure erantzunak ANONIMOAK izango dira. Jasotako erantzun eta datu guztiak konfidentzialtasun osoarekin landuko dira.

Elkarrizketa honetan ez dago erantzun zuzenik edo okerrik, zintzotasun handiarekin erantzutea beterrik ez dizuet eskatzen.

Benetan eskertzen dizut zure laguntza.

Lanaren emaitzak jaso nahi izatekotan niri jakinaraztea eskertuko nizuke:

BAI

EZ

E-maila: _____

SINADURA

5. Eranskina: elkarrizketak.

Elkarrizketarekin izandako elkarrizketen transkripzioa.

5.1. Irakasleak

Haur Hezkuntzako 5 irakasleen transkripzioak.

Lehenengo elkarrizketatua

Haur Hezkuntzako tutorea. 59 urte. 35 urte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa

1) *Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?*

Nik badakit ezberdinak direla, baina ez daukat oso argi zein den ezberdintasuna, ez nuke jakingo termino horien ezberdintasuna zein den.

2) *Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?*

Bai, oso garrantzitsua da lehen bait lehen egitea, umeentzako batez ere. Irakasleak kontuan hartzeko haur horrek dituen gaitasunak eta beharrak, hau da, esku-hartzea egiteko zenbat eta goizago hasi hobeto.

Nik uste dut, batzuetan 3 urteko gelan identifikatu daitekeela, eta adin horretatik hasi behar gara begiratzen, ez dugu zertan Lehen Hezkuntzako etapara itxaron behar.

3) *AGHko haur bat identifikatzen jakingo zenuke?*

Bai. Normalean, ikastaldearekin gaudenean konturatzen gara haur hori ezberdina dela, hau da, Haur Hezkuntzako helburu guztiak guztiz menperatuta dituenean, hori lehenengo alerta da. Eta hortik hasten zara begiratzen. Ondoren, Lehen Hezkuntzan dauden helburuak kontuan hartzen dira eta haietatik baten bat bereganatu duen ikusten da. Holako ariketa egin eta gero, normalean, egiten duguna, aholkulariarekin hitz egitea da. Beti tutoreak ematen du lehenengo pausua, bera izan ohi delako lehenengoa ikustean. Hala ere, ez nuke jakingo zehatz-mehatz zer duen.

4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Gutxi-gora behera badakizkit, edo bestela non begiratu jakingo nuke. Adibidez, eskalak pasatzen ditugunean, hor ezaugarri batzuk agertzen dira eta horiek kontuan hartzen dira talde barruan zerbait gertatzen dela konturatzen zarean. Gainera, hor dauden ezaugarriak oso argiak direnez hortik irakurtzen dituzu eta batzuk

begiratzen dituzu ea betetzen dituen ala ez jakiteko, gero hori aholkulariari esateko. Horrez gain, AGHko haur bat izan dudanez, hortik ere ezaugarri batzuk ikasi ditut; badakit, haur hauek ezberdinak direla, baina behin kasu bat detektatzen duzunean seguruago sentitzen zara eta nondik hasi badakizu.

5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Bai eta nik identifikatua. Talde hori 2 urteko gelatik hartu nuen eta urte horretan bertan (2 urterekin) gauza batzuk ikusten hasi nintzen. Adibidez, pardela aldatzerakoan toallita paketea agertzen ziren esaldiak irakurtzen hasi zen eta baita pasabidetik zeuden zenbakiak esaten ere, “30”, “40”, “100”... Gehiago zehaztuz gero, “50 toallitas”, “Eroski”... irakurtzen hasi zen 2 urteko gelan. Hala ere, hasieran ez nintzen konturatu “50 unidades” esaten zuenean zer esan nahi zuen, baina hurrengo goizean pardela aldatzean gauza berdina egin zuenean konturatu nintzen toallita paketea jartzen zuena irakurtzen zegoela. Hortaz, 2 urteko gelan amaitzean, hurrengo urteari begira aholkulariak begiratzea eskatu genuen. Gainera, haur hori nirekin egon zen Haur Hezkuntza osoa amaitu arte eta izugarritzko gaitasuna zeukan edozein gaietan.

Orain, nire gelan (5 urteko gelan), AGH duen haur bat dagoela uste dut.

Prestakuntza

6) *Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Egia esanda, duela 3 urte horri buruzko formakuntza jaso nuen. Berritzeguneko psikologo bat etorri zen hitzaldi bat ematera eta hitzaldia klaustro osorako derrigorrezkoa zen. Beste formakuntza batzuk, Berritzegunean ematen direnak adibidez, hautazkoak izan dira, ez zaude derrigortuta hori egitera.

Normalean Berritzeguneak antolatzen ditu prestakuntzak. Hala ere, prestakuntza gehiago behar dela pentsatzen dut, askoz gehiago, azken finean gu gara haur horiekin gaudenok; beraz, batez ere esku-hartzean formakuntzaren beharra ikusten dut. Izan ere, detekziorako item eta eskala batzuk daude baita aholkulariaren laguntza ere.

Eskolan ematen den trataera

7) Ikastetxean, nola detektatzen dituzte haur hauek?

Normalean, tutoreak egiten du. Hau da, lehenengo pausua tutoreak ematen du eta gero aholkulariak esku-hartzen du. Tutoreak aholkulariari esaten dio gelan zerbait berezia nabaritu duela, beraz, aholkulariak galdetegi/eskala bat pasatzen digu guk behaketa egiteko baita bera behaketa egin du ere. Bilera horretan adostu egiten da noizkorako egon behar den behaketa, baina normalean, 15 egun ditugu hori betetzeko. Epe hori pasa ostean beste bilera bat egiten da; horretan, bai tutoreak bai gainontzeko irakasleek betetako behaketak aztertzen dituzte. Gero aholkularia kontuan hartzen du tutoreak nabaritu duena, eta baita behaketetan atera dena. Berak erabakitzen du Berritzegunearekin hitz egin behar duen ala ez.

Gero Berritzegunekoek gelara datoz haurra behatzera eta batzuetan haurra gelatik ateratzen dute. Kasu honetan, Berritzegunetik datorren pertsona froga batzuk pasatzen dizkio (nik ez dakit izena, hori nire eskuetan ez dagoelako). Gainera, froga horietan ateratzen diren emaitzak pribatuak dira eta niri, tutore bezala, bakarrik zerrendetan sartu duten ala ez esaten didate, baina prozesuaren amaieran; ez ditugu frogen emaitzak jakiten. Soilik Berritzeguneko pertsona eta familiak daki froga horietan atera diren emaitzak. Hortaz, niri esaten didate, adibidez, gelatik 2 ordu aterako dutela haren gaitasunak lantzeko, edota erabaki dela haurra gelan geratzea baina berarentzat material ezberdina prestatzea. Haiek pausuak markatzen dituzte.

Batzuetan tutoreaz gain beste pertsona bat izan ohi dute laguntzeko, esate baterako haurra gelatik ateratzeko, baina normalean ez dute aparteko laguntzarik. Hala ere, pertsona hori gela barruan edo gela kanpoan egon daiteke, haiek erabakitzen dute nola, zenbat ordu... eta beste batzuetan zuri gauza batzuk ematen dizute zuk berarekin lantzeko.

8) Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)

Proiektuka lantzea ondo legoke, izan ere, bakoitzak bere erritmoa daramalako. Gainera, holako umeek izugarritzko erraztasuna daukate haiek bakarrik informazioa bilatzeko, bai liburuetan agertzen dena bai ordenagailuen bidez; beraz, proiektuen bidez horrelako aukera ematen diegu beti. Gero lan pertsonala egiten denean, haientzat lan berezi bat prestatzen da.

Proiektuez gain, *ambienteen metodologia* egokia izango litzateke, aukera asko dituztelako haien erritmoa eramateko. Hemen, nire ustez, ez da beharrezkoa lan berezia prestatzea. Adibidez, matematika gelan batzuk batuketan egiten egon ahal dira eta bera agian kenketak egiten egon ahal da; edo amets munduan, batzuk lehenengo hitzak irakurtzen ibiliko dira eta berak agian liburu osoa irakurtzen du. Hortaz, haurren erritmoa eta beharrak asetzen dituen metodologia bat jarraitzea aproposa izango litzateke.

9) *Nork esku-hartzen du ikasle hauekin?*

Tutoreak eta aholkulariak. Dena den, Berritzegunetik erabaki bada haur hori zerrendan sartuko dutela haur horri Berritzegunetik jarraipen bat egiten diote; beraz, aholkulariarekin eta tutorearekin hitz egiten dute.

Gainera, Berritzegunekoek erabakitzen dute haur horri ematen zaion materiala edo baliabideak egokiak diren edo ez, laguntza ordu gehiago behar dituen... beraz, ikasturtean zehar aldaketak egiten dituzte. Horrez gain, familiak eta beste irakasleek ere esku-hartzen dute.

10) *Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?*

Bai, beti. Batzuetan, guk (tutoreok) oso argi ikusten dugu baina familiak ez du ezer nabaritu, beraz, haiekin bilera bat egiten dugu. Beste batzuetan kontrakoa gertatzen da, gurasoak datoz guri beraien kezka plazaratzera, haiek etxean ikusten dutena azaltzera. Izan ere, batzuetan seme-alaba gehiago dituzte eta konparaketak egin ahal dituzte. Hala ere, ohikoagoa da gelan detektatzea, hots, batzuetan seme-alaba bat soilik dutenez, ezin dituzte konparaketarik egin.

Tutoreak taldearen barruan ezberdintasuna dagoela ikusten duenean, aholkulariarekin hitz egiten du eta familiarekin bilera bat egiten da. Beti informazio trukea egoten da familiaren eta ikastetxearen artean.

11) *Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiela hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?*

Duela urte batzuk ez zen honetaz hitz egiten, baina azken urte hauetan aurrerapen bat egon da. Duela urte batzuk AGHko umeek normalean ez zuten laguntza

berezirik izaten, pentsatzen zelako bakarrik aurrera joaten zirela. Baina, azken 6 urtetan behar bat ikusi da haur hauei laguntza bat emateko; beraz, orain behintzat arreta eskaintzen zaie. Dena den, ez da parekoa.

12) Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?

Nik uste dut zaila dela haur hauei behar dutena ematea guk laguntzarik ez badaukagu, ikasgelan haur asko dauzkagulako. Hortaz, uste dut garrantzitsua dela haur horiek bai ikasgelan bai ikasgelarik kanpo laguntza izatea. Gainera, gelatik kanpo ateratzen baditugu, haien emozioak landu daitezke eta hori oso baliagarria izango da bera bere burua onartzeko. Hortaz, laguntza gehiago egon beharko zen egoera modu egokian aurrera ateratzeko eta ume hauen emozioak landu ahal izateko.

Bigarren elkarrizketatua

Haur Hezkuntzako tutorea. 40 urte. 12 urte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa

1) *Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?*

Ez, goiztiartasuna hitzaren esanahiagatik jakingo nuke zer den baina talentua eta talentu aparteko terminoak ez. Egia da termino horiek entzun ditudala baina ez dakizkit desberdintzen.

2) *Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?*

Nik uste dut baietz, baina Haur Hezkuntzan ez dakit oso esanguratsua izango den identifikatzea, batez ere Lehen Hezkuntzara begira beharrezkoa ikusten dut; laguntza eskatzeko eta beste modu batean lan egiteko.

Agian nabariena 4-5 urteko gelan izan daiteke, baina ez nuke ziur esango; ze 2 urteko gelan badaude ezberdintasun handiak dituzten ikasleak, adibidez, batzuek ez dakizkite letrak eta beste batzuk ematen du irakurtzen dakitela. Hala ere, horrekin kontuz ibili behar da, batzuk oso estimulatuak daudelako edota etxean irakurtzeko ohitura dagoelako, beraz, horrek ez du esan nahi Adimen Gaitasun Handiko haurrak direla. Izan ere, aurreratukoak joaten ziren haurrak gero besteekin parekatzen doaz eta ezberdintasuna ez da hain handia. Hori dela eta, agian, 4-5 urteko gelan identifikatu daiteke, nabariagoa delako eta batez ere haien artean konparazioak egiten ditugulako AGHko ikaslea den jakiteko.

3) *AGHko haur bat identifikatzen jakingo zenuke?*

Beti zalantzekin gaude, zuk Adimen Gaitasun Handiko haurra izan ahal dela pentsa dezakegu, baina kasu oso argia ez bada, ez dakigu ondo identifikatzen. Orduan zaila da, beraz, ez dakit identifikatzen jakingo nukeen ala ez. Agian, kasu batzuetan zailagoa da, eta beste batzuetan, ordea, argiago ikus daiteke; beti aholkulariari galdetuko nioke.

4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Orain arte ez zaio garrantzirik eman, edo behintzat arreta beste ikasle batzuetan jartzen zen, behar bereziak dituzten haurretan esate baterako. Orduan, AGHko haurrak agian egon dira baina oso azkarrak zirenez aurrera joan dira eta ez zaie

arretarik eskaini. Baliteke, ume horiek atzean geldi ahal izatea guk ez identifikatzeagatik, bertan behera gelditzea, hau da, aurrera ez egitea. Eta, agian kontrari ere, Behar Bereziko ikasleak izatera pasatzea.

Ez nintzateke ausartuko Adimen Gaitasun Handiko harren ezaugarriak esatera, izan ere, ume bakoitza ezberdina denez, haien ezaugarriak ere ezberdinak izango dira. Dena den, badakit autonomiaz jokatzeko dutela, jakin-min handia dutela, interes eta motibazio ezberdinak izan ahal dituztela, hizkuntza arloan ondo maneiatzen direla, besteekiko harremanetan arazoak izan ahal dituztela... baina hobeto jakiteko aholkulariari galdetuko nioke edota Eusko Jaurlaritzak argitaratutako AGHko orientabideen dokumentuak irakurriko nituzke.

5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Antza izan bai, baina Haur Hezkuntzan identifikatu ez.

Orain badago kasu bat, nik uste dut izan daitekeela baina ez daukat argi; izan ere, gehienbat konparaketak egiten ditugu haurren artean baina kasu honetan 5 urteko bi ume soilik ditugunez zaila egiten zait.

Horrez gain, haurrak dituen gaitasunak begiratzeko dira, adibidez, 5 urteko gelan zein gaitasun lortu behar ditu eta zein lortzen duen. Gero Eusko Jaurlaritzak bidali duen protokoloa begiratu dugu, Arreta Goiztiarrarena, eta hor item batzuk agertzen dira. Horrez gain, hurrengo pausoa eman dugu, hau da, gurasoei komunikatu diegu baina haiek ez daude ados, konforme daudela esaten dute eta momentuz ez dutela jakin nahi edo etiketatu nahi. Orduan hor dago kasua, baliteke aurrerago joatea eta Lehen Hezkuntzan dagoenean zerbait gehiago igortzea edo identifikatzea. Guk baietz pentsatzen dugu baina hor dago.

Prestakuntza

6) *Zer laguntza daude detekzioarako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Zehazki ez dugu formakuntzarik jasotzen. Gure kabuz eskatzen badugu bai, edo kurtsoetara apuntatzen bazara ere horren inguruko informazioa jasotzen duzu, baina hori zure kabuz egin behar duzu, bakoitzaren interesen arabera da.

PT izan nintzenean horren inguruko formakuntza jaso nuen bai nire kabuz baita Berritzeguneak eskainita ere, baina normalean Behar Bereziak dituzten haurrenganako informazioa eskuratzeko zen. Haur Hezkuntzako irakasle bezala ez

dugu prestakuntzarik jaso. Zehatzago esanda, duela 5-6 urte hasi zen AGHko hurrei buruz hitz egiten, hots, lehenago ez zen horri buruz hitz egiten.

Uste dut, arlo honetan prestakuntza behar dela, izan ere, azkenean ez da soilik materia gehiago ematea. Hots, haur hauek emozioetan oso galdutak daude, beraz, horri era egokian aurre egin ahal izateko formakuntza jaso beharko genuke. Beraz, arreta esku-hartzean jarriko nuke, batez ere emozioen alderdian, hots, material gehiago ematea errazagoa izan daitekeela uste dut, horretan trebatuak gaudelako. Hori posible izateko, baliabide pertsonalak ere beharrezkoak dira.

Eskolan ematen den trataera

7) Ikastetxean, nola detektatzen dituzte haur hauek?

Pausuak gainontzeko ikastetxeetan bezala dira, hau da, gelako tutoreak behaketa egiten du, ostean aholkulariari komentatzen dio eta beharrezkoa izatekotan aholkulariak Berritzegunearekin kontaktuan jartzen da. Beraz, zalantzan egotekotan Berritzegunera joaten gara, baina azken finean gertatzen dena bada bakoitzak bere kabuz kanpoko zerbitzuetara joaten direla (izan dugun kasu bakarra horrela egin du), ikastetxearen barruan prozesua oso luzea delako, eta bertan balorazioa egiten diete.

Gero badago, beste kasu bat, guk ez duguna identifikatu; eta informazioa begiratu ostean, ikusi dugu ez dela baina gurasoak kezkatuak daude eta kanpoko zerbitzu batengatik bideratzen daude. Beraz, bai ikastetxeak bai familiak identifikatu dezake; kasu honetan niri galdetu didate eta nire ezjakintasunetik nik AGHko haurra ez dela esan nien baina nik ez ditut giltzak hori identifikatzeko, orduan, zer gertatzen den jakingo dugu.

8) Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)

Haur Hezkuntzan behintzat, pentsatzen duguna zera da: berak eskatzen duena eman behar diogula, hau da, berak behar dituen erremintak ematen dizkiogu. Hori da egiten duguna, ez daukagu plangintza zehatz bat. Hau da, bera irakurtzen hasi bada eta irakurri nahi badu, irakurtzen du edo idatzi nahi duenean idazten du; adibidez, aurreko egun batean biderketak egin nahi zituela esan zuen, ba egin genituen. Ez diozu esango “hori datorren urtean egingo duzu”, beraz, haurrak eskatzen duena ematen diogu berarentzat ona delako. Baina horrelako baliabideak erabili ahal izateko garrantzitsua da eskolan jarraitzen den metodologia hori ahalbidetzea, kasu

honetan, proiektuen bidez lan egiten dugunez posiblea da honelako gauzak egitea, horrela haur hauen beharrak eta interesak asetzen direlako.

9) *Nork esku-hartzen du ikasle hauekin?*

Hasieran soilik tutorea da behaketa egiten duena, baina identifikatzen bada aholkularia sartzen dela imajinatzen dut, hau da, errekurtsioak dituzten pertsonak (Berritzegunea). Hala ere, prozesu osoan zehar familia ere presente egon behar da, haiek momentu guztietan guztiaren informazioa izan behar dutelako.

10) *Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?*

Bai, guri adibidez kanpoko zerbitzu horietako test bat pasatu digute identifikatu ahal izateko. Beraz, horretarako ez dago arazorik. Nahiz eta guk pentsatu AGHko ikaslea ez denik, gurasoen kezka bada guk test hori pasatzen dugu ziurtatzeko. Horrez gain, bai Adimen Gaitasun Handiko ikasleekin bai gainontzeko umeekin familia eta eskolaren arteko elkarlana funtsezkoa da.

11) *Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiela hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumendo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?*

Ez dut uste arreta berdina eskaintzen zaiela, baina orain behintzat informazioa jasotzen da AGHko hurrei buruz. Lehen pentsatzen zen Adimen Gaitasun Handiko haurrak oso azkarrak zirela eta ez zutela laguntzarik behar, haiek bakarrik aurrera egingo zutela. Eta orain (azken urte hauetan) haiei buruz hitz egiten hasi da, identifikatzen eta erantzuna ematen. Baina, Hezkuntza Behar Bereziak dituzten hurrek jasotzen duten laguntzaren parean jartzeko oraindik bidea geratzen da, beraz, aurrera jarraitzea eta prestakuntza gehiago jasotzea ezinbestekoa da.

12) *Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?*

Nik uste dut emozioetatik hasi behar dela, izan ere, horrela lasaitasun batekin hasi ahal dira lanean, edo behintzat haiek haien burua kokatzeko garrantzitsua da “zer daukat”, zer gertatzen zait”... bezalako galderei aurre egiteko. Ondoren, lan egin ahal izateko.

Hirugarren elkarrizketatuta

Haur Hezkuntzako tutorea. 43 urte. 17 urte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa

1) *Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?*

Esango nuke goiztiartasuna bai, baina talentua eta talentu aparteko haurrak ez. Beraz, goiztiartasuna, gaitasunak eta konpetentziak gainontzeko ikasleek baino goizago eskuratzen dituen pertsona dela uste dut; baina hitzak esaten duelako, ez nik dakidalako.

2) *Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?*

Nik uste dut identifikazio goiztiarra garrantzitsua dela, eta ume horiek ere beraien interesak asetzeko materialak eta ekintzak behar dituztela. Nik uste dut, kasuaren arabera 4-5 urterekin nabaritu ahal dela. Baliteke, batzuetan goizago ikustea baina, orokorrean, 4-5 urterekin segurtasun handiagorekin identifikatu daiteke.

3) *AGHko haur bat identifikatzen jakingo zenuke?*

Nik uste dut konturatuko nintzela; hau da, zenbait aspektuetan ezberdina dela konturatuko nintzateke. Baina nik jakitea edo kapaz izatea esateko Adimen Gaitasun Handiko haurra dela ez; hori aholkulariari galdetu beharko nioke. Hau da, aholkulariari esango nioke uste dudala ume honek zerbait berezia izan ahal duela baina ez nuke jakingo zer.

4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Nik egingo nukeena aholkulariari galdetzea eta protokoloa begiratzea izango litzateke. Egia da badakidala hizkuntza aldetik maila nabaria izan ahal dutela bai ulermenean bai ekoizpenetan, edota abstrakzio maila handia izan ahal dutela. Baina konkretuki zeintzuk diren haien ezaugarriak ez, ez dakizkit; orokor batzuk bai.

5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Ez. Baina nire kide batzuk bai eta kasuaren arabera lehenago edo beranduago nabaritu daiteke haur horrek zerbait berezia duela.

Prestakuntza

6) *Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Guk unibertsitatean ez genuen horri buruz ezer ikasi, beraz, zure esku geratzen da. Hau da, zerbait detektatzen duzunean ez dakizu zer den, beraz, galdetzea eta informazioa bilatzea ezinbestea da. Egia da, eskala bat dagoela eta bertan atal bat dagoela zeinetan ezaugarriak agertzen diren, beraz, horien bidez orientatu zaitzake.

Ez dugu prestakuntzarik jasotzen, bakarrik eskala hori dugu eta baita aholkulariaren laguntza ere. Hortaz, prestakuntza behar dela uste dut, ez hainbeste detektatzeko, hots, uste dut detektatzen ditugula nahiz eta horretan formatua ez egon; beharrezkoagoa ikusten dut esku-hartzean formakuntza bat jasotzea.

Eskolan ematen den trataera

7) *Ikastetxean, nola detektatzen dituzte haur hauek?*

Badakit prozesua aholkulariarekin batera egiten dela ikastetxean kasu bat dugulako orain. Hau da, tutoreak aholkulariari beraren kezka edo ikusten duena adierazten dio eta kasu honetan aholkulariak irakasle guztioi behatzeko eskala batzuk pasatu dizkigu, izan ere, *gela irekien metodologia* erabiltzen dugunez, irakasle guztiok horren behaketa egitea ezinbestekoa da. Gainera, aholkulariak ere behaketa egiten du. Behin behaketa egin ondoren, aholkulariarekin biltzen gara eta lortutako informazioa partekatzen dugu. Aholkulariari informazioa pasatu ondoren berak baloratuko du zer egingo duen, eta behar izatekotan Berritzegunearekin kontaktuan jarriko da. Ondoren, Berritzeguneko pertsona bat etortzen da eta haurrari froga batzuk pasatzen dizkio. Azkenik, familiarekin hitz egiten da.

Batzuetan gurasoek ere identifikatu egiten dute, beste batzuetan tutoreak komentatu ahal die gelan zerbait ikusten duela.

8) *Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)*

Imajinatzen dut aholkulariak pautak batzuk emango dituela. Dena den, familiaren araberakoa izango da, hots, familia batzuek ez dute nahi haurra gainontzeko ikaskideek jasotzen duten erantzun desberdina izatea. Hala ere, aukeratu beharko zen metodologia ikasle guztientzako onuragarria izan beharko zen, hau da, umeen interesak, beharrak, motibazioak, jakin-mina... asetzen duen metodologia.

9) *Nork esku-hartzen du ikasle hauekin?*

Tutoreak, gainontzeko irakasleek, aholkulariak, familiak eta Berritzeguneak esku-hartzen dute.

10) *Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?*

Bai, nik uste dut neurri batean kontuan hartu behar dela familiaren iritzia. Adibidez, familiak uste du *urtea igarotzea* aukera ona izan daitekela baina ikastetxeak horren alde ez dagoenez, ikastetxeak erabaki beharko du. Kontrakoa ere gerta liteke, gurasoek esatea bere seme-alaba gainontzeko ikaskideen esku-hartzea jarraitzea nahi dutela. Hala ere, gurasoei azaldu behar zaie bere seme-alaba gainontzeko haurrek baino gaitasun handiagoa duenez batzuetan gaia sakontasunez lantzeko material gehiago eskaini behar zaiola.

Dena den, egoera guztietan familiarekin kontaktuan egon behar gara, eta eskolan gertatzen dena azaldu behar diegu. Gainera, familiak ere guri informazioa eman ahal digu eta era horretan, haur horri zuzendutako esku-hartzea egokituagoa izango da.

11) *Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiola hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektratu autistaren nahasmenduak, jokatibide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?*

Ez, ez zaie arreta berdina eskaintzen, baliabide guztiak hezkuntza-behar bereziak dituzten umeentzat bideratuak daude.

12) *Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?*

Zaila ikusten dut, azkenean ikastetxea errekurtsio batzuk ditu eta normalean Hezkuntza Behar Bereziak dituzten ikasleei bideratuak daude. Hortaz, AGHko ikasleengan arreta ere jarri beharko litzateke, haiek ere laguntza behar dutelako.

Laburbilduz, errekurtsio gehiago beharko ziren. Gainera, irakasleok horren inguruko formakuntza jaso beharko genuke. Ez du balio esateak oso azkarrak direla eta horregatik beraiek bakarrik aurrera egin dezaketela, prozesu horretan ere gure laguntza behar dutelako.

Laugarren elkarrizketatua

Haur Hezkuntzako tutorea. 58 urte. 34 urte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa

1) *Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?*

Egia esanez ni ez nago horretan formatuta. Hala ere, egia da jakinminagatik, eskolan kasuak egon direlako, edo zorionez azken urteotan horri buruz hitz egiten hasi delako, beste kontzientzia maila bat dago. Orain arte, ardura gehiena eta baliabide guztiak, normalean, behar bereziak zituzten haurrengana joaten ziren eta arreta ez zen AGHko ikasleengana bideratzen. Gai hau, egia esanez, orain arte pixka bat aldentuta egon da. Nik 34 urteetan kasuren bat izan dut eta intuizioak esan dit zerbait gertatzen zela. Agian, ez duzu jakingo zehatz mehatz zer den, profesional maila batean, baina bai susmoak dituzula edota ikusten duzulako bere garapena beste modu batekoa dela edo adinari dagokiona baino garapen handiagoa duela.

Nik ez dakit jakingo nukeen zehatz mehatz ezberdintzen. Nik beti pentsatu dut ezberdina dela Adimen Gaitasun Handikoa izatea edo *talentoso* izatea. Nik beti pentsatu dut talentua arlo konkretu batean gaitasuna izatea dela; eta AGHkoa izatea integralagoa dela, baina formatua ez nagoenez, ez dakit zehatz mehatz zer den.

Gainera, laguntza behar dudanean eskatu egiten dut, ez daukat horretarako arazorik. Gauza bat ez dakigunean edo gure formakuntza barruan ez bada hori egon, horrek ez du esan nahi aparkatuta utzi behar dugula, baizik eta horri aurre egiten saiatu behar gara; beraz, zerbait susmatzen dudanean aholkulariarengana jotzen dut.

Pitin bat mugitzen naiz horretan baina ez termino horiek zehatz mehatz ezberdintzen ditudala esateko.

2) *Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?*

Bai, oso garrantzitsua da, izan ere, detekzio bat dagoenean aukera dago ume horri behar duenaren arabera erantzuna emateko. Bestela, erantzuna, agian, ez da berari zuzenduta egongo.

Nik uste dut, *ajuste* hori oso inportantea dela, hau da, bakoitzari behar duena eman behar zaio; dena den, oso zaila da. Gauza bat da nola izan beharko zen eta beste gauza bat errealitatea da, aldagai asko sartzen direlako, esate baterako, haur kopuru handia gelan, baliabide gutxi... nahiz eta zaila izan oso beharrezkoa da.

Detektatzeko ez da Lehen Hezkuntzara itxaron behar, lehenago egin daiteke. 2015-2016 ikasturtean Eusko Jaurlaritzak haurren garapenaren jarraipenaren protokoloa jarri zuen martxan; protokolo horretan haurrek zein ezaugarri izan beharko zituzten agertzen da. Beraz, protokolo horretan goiztiarren garapena kontenplatu da baita garapenean zailtasunak dituztenak ere. Protokolo honek, ahalik eta lasterren identifikatzea ahalbidetzen digu, eta horretan AGHko haurrak ere sartzen dira. Hori dela eta, eta horri esker, eskolarizatu bezain laster detektatu daiteke, eskala horiek 2, 3 eta 4 urteko gelan pasatzen direlako. Hala ere, batzuetan konplexua da, zaila, baina nire esperientziagatik, lehenengo momentutik ikusten duzu ume hori beste modu batean garatzen dituela konpetentziak eta gaitasunak, hau da, erraztasun handia duela ia guztietarako, bere garapena oso azkar joaten dela eta orduan jarraipen bat egiten da.

Dena den, lehenengo momentutik ez nintzateke ausartuko esatera AGHko haurra dela, baina bai familiarekin eta eskolarekin konpartitu. Beraz, ikusten bada hurrengo ikasturtean horrela jarraitzen duela horretan esku-hartu behar da; beraz, batzuetan Haur Hezkuntzako etapan ikus daiteke, hain zuzen ere, 4-5 urterekin.

3) AGHko haur bat identifikatzen jakingo zenuke?

Ez dakit identifikatuko nukeen, baina bai jakingo nuke haur hori ezberdina dela. Identifikazioa bai egiten dugula, baina batzuetan ezin dugu ziurtasunez jakin; hortaz, nik aukera horretan pentsatu dudanean, aholkulariarekin hitz egin dut eta baita familiarekin ere.

Zaila da, baina zortea baldin baduzu eta zuk denboraldi luze batean bere tutorea bazara, horrek ere ziurtasun maila handi bat ematen dizu etengabeko behaketa egiteko aukera duzulako. Hau da, ume hori egoera ezberdinetan nola maneiatzen den ikusten duzulako, bere gaitasun propioa den ala oso estimulatua dagoen jakiten duzu... Orduan, tutorearen egoeraren arabera, tutorea mantentzen den ala ez, aukera handiagoa duzu ume horri behaketa egiteko eta behaketa horri jarraipena egiteko, ondorioak kontrastatzeko...

Nik uste dut, orokorrean identifikatzen ditugula, zerbait ezberdin ikusten dugulako, gero esatea talentua edo talentu apartekoa den ez, horrek prozesu luze bat eskatzen duelako.

4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Ezaugarri batzuk badakizkit protokolo horretan mugitzen garelako, hor adierazle batzuk agertzen direlako. Horrez gain, Adimen Gaitasun Handiko haurrak eskolan izan ditugu, beraz, horri esker ikasten dugu.

Batzuetan nahiz eta oso formatua ez egon, esperientziak ematen dizu aukera hori. Egia da, ezaugarri guztiak ez ditudala ezagutzen espezialista baten moduan, baina maneiitzen naiz. Gainera, zalantzak izatekotan aholkulariarengana joaten gara eta aholkulariak informazioa pasatzen digu. Beraz, horri guztiari esker eta nire jakin-minari esker ikasten joaten zara.

5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Bai. Eskola honetan 20 urte daramat eta beste 14ak beste eskola batean egon nintzen. Bertan bat izan nuen, momentu horretan diagnostikatua ez zegoen ume bat, baina argi ikusten zen, oso argi. Momentu horretan, gai honi ez zitzaion ez espaziorik, ez denborarik, ez formakuntzarik... ematen. Beraz, honi buruz formakuntza bat ateratzen zenean nik beti parte hartu dut baina momentu horretan gai hau ez zen inoiz eskaintzen. Haurren eboluzioa familiarekin konpartitzean, bai familiak bai neuk, ikusten genuen ume horrek zituen gaitasunak oso handiak zirela. Haiek momentu horretan horrela uztea erabaki zuten umea zoriontsua zelako eta ez zuten beste modu batean jokatu nahi izan. Orduan, familiak beste bide batzuetatik bere beharrak asetu zituen, hau da, musikan oso trebea zenez, musika egiten zuten, baita beste hizkuntzak ikasi eta asko idatzi ere. Komikiak idazten zituen. Orain, nagusia izanda jakin dut idazten jarraitzen duela, eta oraindik ez da idazle famatua baina bere lanak egin ditu. Hori izan zen ezagutu nuen lehena ni tutorea izanda.

Gero hemen, eskola honetan, 4 urteko talde bat hartu nuen eta 4 urteko talde horretan ere haur bat zegoen, baina ume horrek jadanik diagnostikoa zuen. Gurasoek eskolatik kanpo arduratu ziren kontsulta hori egiten. Momentu horretan ere erabaki zen ezer berezirik ez egitea. Egia da, etapa honetako dinamika eta funtzionamendua, haur guztiei aukerak ematen dizkiela bere garapenaren arabera bere beharrei erantzuten joateko. Gero, Lehen Hezkuntzara joatean uste dut berriz eskuratu zela gaia, eta esku-hartze ezberdin bat egin behar zela pentsatu zen.

Gero, beste bat ezagutu nuen hemen bertan, diagnostikorik gabe baina familiak ere ez zuten beharrezkoa ikusten zerbait egitea.

Beraz, nik tutore izanda egon dira eta uste dut momentu honetan... egon badaudela. Zentsu horretan Haur Hezkuntzan dauden bitartean, ni ausartzen naiz esatera, haur hauen beharrak *nahiko* betetzen direla. Baina oso inportantea da detektatzea, ze haur horiek ulertuak sentitu behar dira, ulertu behar dugu zergatik modu horretan jokutzen duten, hori guztia oso inportantea da.

Prestakuntza

6) *Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Eskola mailan adibidez, ez dugu formakuntzarik izan; ostegunetan prestakuntzak egiten ditugunean inoiz ez da gai hau tratatu. Baina, egia da, protokoloa argitaratu zenean Berritzegunetik deialdi bat egon zela, eta deialdi horretara denok gonbidatuak egon ginela. Kasu honetan ikasturtea hasi baino lehenago bildu ginen, haurrak eskolara etorri baino lehenago, eta protokoloaren berri eman ziguten; hau da, protokoloa nola erabili beharko zen eta horren barruan zeuden atalak. Ez zen formakuntza izan.

Nik uste dut, prestakuntza gehiago behar dela, hobetzeko beharra ikusten dut eta. Baita ebaluazioa eta prozesu horretan zen fase ezberdindu daitezkeen, fase bakoitzean nola heldu ume horrengan... hau da, formakuntza arlo guztietan behar dugu. Hots, nik ezagutu ditudanak, haien artean ezberdinak ziren, beraz, haiengan heltzeko modua ere ezberdina da. Orduan, horretan gero eta gehiago baldin badakigu erraztasun handiagorekin esku-hartu dezakegu.

Eskolan ematen den trataera

7) *Ikastetxean, nola detektatzen dituzte haur hauek?*

Jarraitzen den prozedura berbera izan da eskola guztietan. Familiarekin partekatu, nik aholkulariarengana jo, Haur Hezkuntzako gainontzeko ikasleekin komentatu, behaketa egin eta erabakiak hartzen dira. Dena den, prozesua oso luzea da, izan ere, familiak diagnostikoa nahi duenean denboran luzatzen da; oso behaketa espezifikoa behar delako. Gero Berritzegunera joan behar dugu. Ondoren, hango espezialistak balorazio bat egin behar du, ematen duen emaitzaren arabera esku-hartze bat edo beste bat egiten du. Beraz, prozesu horrek asko iraun dezake.

8) *Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)*

Nik uste dut, funtsezkoa dela gu adi egotea haien beharrak zeintzuk diren detektatzeko. Hau da, ikustea nola sentitzen ziren edo zer nolako transferentziak egiten dituzten, ikasten dutena nola erabiltzen duten, ia autonomia duten, ia esku-hartze konkretu batean zain dauden... Eta gehienetan nik behatu dudana bada, normalean, autonomiaz jokatzen dutela.

Beraz, *gela irekien metodologiak* egia da atak zabaltzen dituela. Orduan, oso garrantzitsua da, guk irakasleok, espazioak antolatzen ditugunean, bai materialak bai ematen diren eskaintzak... den dena, edozein umek erabili ahal izango duela ziurtatzea, bai AGHkoa dena edo bai beste erritmo bat daramana. Beraz, hori zaintzen badugu: materialen zaintza, denboraren banaketa, haiei erabakiak hartzen uztea eta autonomiaz mugitzen badira; hori guztia aurrera eramaten denean, nik uste dut, haien beharrak asetzen direla.

Nik ere pentsatzen dut metodologia batzuk, beste batzuk baina gehiago lagundu dezaketela. Egia esanez, metodologia hau oso lagungarria da. Gehiago esanda, beste egoera batean dauden ume batzuentzat, berriz, ez dio mesederik egiten, gidatuagoak egon behar diren umeentzat edota oraindik erabakiak hartzeko prest ez baldin badaude, metodologia konplexuagoa eta zailagoa da. Baina ume hauentzat nik uste dut lagungarria dela. Metodologia garrantzitsua da baina hori baino askoz gehiago gu oso adi egon behar gara. Eta batzuetan zoritxarrez ezin dugu, hori da gure erronka.

9) *Nork esku-hartzen du ikasle hauekin?*

Eskola komunitate osoak esku-hartzen du ikasle hauekin, tutoreak, gainontzeko irakasleek, aholkulariak, Berritzeguneak eta familiak.

10) *Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?*

Bai, eta gainera, ezinbestekoa da haurra hobeto ulertzeko. Nire ikuspuntutik, inoiz ezin da familiarekiko harremana ahaztu, baina kasu bereziak daudenean elkarlanean aritzea ezinbestekoa da. Familiak informazio handia eman dezake eta trukaketa horretan asko lagundu gaitezke elkarri.

Gainera, ume hauekin konkretuki esku-hartzea oso globala eta integrala izan behar da. Normalean, horrela egiten denean, gauzak nahiko ondo eta erraz ateratzen dira. Batzuetan familiek ez dute nahi bere seme-alaba ezberdina izatea; beraz, familiarekin batera aritu behar gara bai haurrak bai gurasoak ezberdintasun hori onartzeko, umea

ulertua sentitu behar delako. Hortaz, gure esku-hartzean hori kontuan hartu behar dugu, haurren interesak eta beharrak kontuan hartzeko. Prozesu bat da eta familiarentzako ere ez da erreza, hortaz, hori ere kontuan izan behar dugu.

11) *Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiola hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?*

Nik uste dut, momentuz desoreka bat dagoela; baina desoreka hori, ez dela nahita gertatzen edo eskoletan lan egiten dugunok horrela nahi dugulako. Uste dut gertatzen dela, ba, agian, behar diren baliabideak ez daudelako. Orduan, gehienetan egiten dena, eskolan arazo larriekin edo oso diagnostiko konplexua duten haurren baliabide guztiak zentratzea da. Baina horrek desoreka bat egotea suposatzen du.

Nola konpondu ahal da hori? Ba hemendik aurrera, eta uste dut egiten hasi dela, gaiari garrantzia eman behar zaio eta beharrezkoak diren baliabideak kontuan hartu behar dira, baina azkenean oso baldintzatuak gaude. Irakasle kopuru bat dago, ikasle kopuru bat... sistemak markatu egiten du ze erratio dagoen, sistemak markatzen du honelako egoeretan zer egin... baina gero egoera horretan ere baliabideen aldetik lehentasunak ezartzen dira. Beraz, lehentasuna duen horri erantzuna emango diogu lehenengo, besteei geroago. Nik uste dut, egia esanez gero, desoreka dagoela; ez zen horrela izan behar baina errealitatean badago. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka aldaketak egon direla uste dut, eta zentzu horretan aurrerapausuak eman dira, baina horrek ez du esan nahi dena eginda dagoenik, oraindik bidean gaude.

Protokolo hori martxan jarri zenetik (duela 6 urte gutxi gora-behera), egia da, behintzat beste kontzientzia bat dugula. Begiak irekitzen goaz, eta besteekin esperientziak partekatzean ikasten dugu; orduan nik uste dut hori ere oso garrantzitsua dela.

Haur horiei estrategiak eman behar dizkiegu, batez ere besteekiko harremanetan; batzuetan kostatzen zaie beraien interesak beste maila eta toki batean daudelako. Orduan, harremantzen dira, baina hor batzuetan *karentzia* bat ikusten da.

12) Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?

Nik uste dut, oso adi egon behar garela eta ez garela ezaugarri orokorrekin konformatu behar, bakoitzari behar duena eman behar zaio eta ez AGHko haurra denez, guztioi gauza eta eskaintza berdinak egitea.

Baina hori baino garrantzitsuagoa adi egotea da, ezin gara lasaitu, etengabe behatzen egon behar gara, haurren beharretara egokitzeko eta behar izanez gero aldaketak egiteko. Hau da, lehenengo prestatuak egotea ezinbestekoa da eta pausu hori unibertsitatean eman behar dela uste dut. Argi dago, lanean gaudenok horretan jarri behar garela, hots, jakin behar dugulako AGHko haurra den edo soilik oso estimulatua dagoen. Nik uste dut, funtsezkoa dela formatuak egotea. Nik ikasi nuenean ez nuen aukera hori izan; baina gaur egun, AGHko haurrei ematen zaien trataera hobetzeko unibertsitatean garatu beharreko gaia izan beharko litzateke. Gero, eskoletan, eskala betetzera ez mugatzeko, izan ere, nik uste dut prozesu horretan hutsune asko daudela eta hutsune horiek ume markatu ahal dutela.

Beraz, bitartean, zerbait egin beharko zen: behaketa, ondoan egotea... baina garrantzitsuena *el acogimiento* da, haurra den modukoa onartu behar dugu, “zu ezberdina zara eta nik zaren moduan onartzen zaitut, eta saiatuko naiz hori kontuan hartzen zure eskaintzak zuretzat zuzenduak izateko”. Nire sentimendua da, ez naizela heltzen ume guztien beharretara.

Nola hobetu? Lanean jotake eta behar dutena eskatzen. Nik uste dut ezin garela isildu eta geldirik geratu, “nik beharko nuke...”, “nik beharrezkoa ikusten du...” behin eta berriro esatea eta hori hobekuntza lortzeko bide bat izan daiteke. Batez ere, ezin duguna ahaztu bada AGHko haurrak umeak direla, orduan, guk bide hori irekitzea behar dute eta lagunduta egotea bide hori egiteko.

Bostgarren elkarrizketatua

Haur Hezkuntzako tutorea. 44 urte. 18 urte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa*1) Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?*

Badakit terminoak ezberdinak direla baina zerbait esaten badizut *dibagatzea* izango zen, beraz, nahiago dut ezer ez esatea ziur ez dakidalako. Badakit hiru termino horiek Adimen Gaitasun Handiko haurren inguruan direla, baina ez dakit ze ezberdintasun dagoen haien artean; agian goiztiartasuna, hitzak esaten duelako.

2) Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?

Bai, imajinatzen dut baietz. Haur Hezkuntzan gora-behera handiak daude eta hori nabaritzen da, nik batzuetan ume bat izan dut 2 urteko gelan oso ona zela, eta gero gainontzekoekin parekatu egin da; beraz, nire ustez zaila izaten da hain txikiak izanda zerbait identifikatzea. Agian 4-5 urterekin errazago izango da. Ez duzu Lehen Hezkuntzara itxaron behar. Hala ere, nik nahiago dut ezer ez diagnostikatzea, hots, saiatu egiten naizelako haur bakoitzari behar duena ematen.

Egia da, batzuetan identifikazio goiztiarra egitea ez dela batere erreza baina haurraren gaitasunak aurrera joateko eta behar dituen baliabideak eskaintzeko hobe da lehen bat lehen jakitea. Hala ere, kasu bakoitza oso ezberdina da, batzuetan 3 urterekin zerbait nabaritzen duzu eta behaketa jarraia egiten diozu, baina beste kasu batzuetan 5 urteko gelara arte ez duzu ezer berezirik nabaritu.

3) AGHko haur bat identifikatzen jakingo zenuke?

Suposatzen da pasatzen dugun eskalarekin identifikatzen direla baina laguntza izanez gero hobeto. Kasu bat izan dugu non guk oso azkarra zela ikusten genuen baina parametro horietan normal zegoen, beraz, ez zenez parametro horietan sartzen AGHko ikaslea denik ezin dugu esan.

Dena den, behar izatekotan informazioa bilatu eta irakurriko nuke, baita aholkulariari eta beste lankideei galdetu ere. Identifikazioa ez delako soilik tutorearen ardura, baizik eta hezkuntza komunitate osoaren ardura. Hau da, zerbait gertatuko zela ikusiko nuke, baina ez nuke jakingo zer.

4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Zalantzak izatekotan, eskolako aholkulariari galdetuko nioke, ea nola bideratu behar den edo Berritzegunera jo behar dugun jakiteko. Horrez gain, Adimen Gaitasun Handiko ikasleen ezaugarri orokor batzuk badakizkidala esan nezake, izan ere, Arreta Goiztiarreko protokoloan ezaugarri ezberdinak agertzen direnez (adin bakoitzean eskuratu behar diren gaitasunak zeintzuk diren), ba, errazagoa izan daiteke zerbait nabaritzea. Gainera, esperientziak ere jakintza puntu bat ematen dizu, orduan, hezkuntzan urte asko daramatzazunean, nahiz eta zehatz mehatz ezaugarriak ez jakin, badakizu haur hori berezia dela eta beste era batera ikasten duela. Ezaugarri orokor batzuk nire ustez, autonomia, jakin-mina, sentiberatasuna, interesa, motibazioa... dira; hala ere, umearen arabera batzuk edo beste batzuk izan daitezke. Esan behar dut, normalean, haur hauen kasuan bere adinekoekin harremantzea kostatzen zaiela. Baina, inoiz ez zaidanez egoera hori suertatu ezin dezaket askorik esan.

5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Nik jakinda ez, baina haur bati hemendik kanpo proba batzuk egin dizkiote eta horietan maila altua eman du. Orain Lehen Hezkuntzako bigarren mailan dago baina Haur Hezkuntzan egon zenean, bagenekien azkarra zela baina ez hainbeste. Hala ere, ez da parametro horien barruan sartzen zerrendetan egoteko. Beraz, ez dakit hori Adimen Gaitasun Handiko haur baten moduan hartzen den. Nik dakidanez ez dut izan, baina eskola desberdinetatik pasatzen garenez ez dugu ikasle guztien prozesu osoa jakiten.

Prestakuntza

6) *Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Ez dugu laguntza berezirik jasotzen, gehiago esanda, nik ez dut inoiz honi buruzko formakuntzarik jaso eta 18 urte daramatzat hezkuntzan lan egiten. Hortaz, formakuntza jaso beharko genuke, izan ere, batzuetan umeek portaera arazoak izaten dituzte eta ez dakigu zergatik, eta urte batzuk pasata Adimen Gaitasun Handiko haurra zela jakiten dugu. Orduan oso garrantzitsua da prestakuntza jasotzea. Gainera, uste dut prestakuntza arlo guztietan jaso beharko genukeela, bai hasierako

detekzioan, bai esku-hartzean bai ebaluazioa egiterako orduan. Hau da, formakuntza soilik detekzioan jasotzen badugu, gero ez dakigu nola esku-hartu haur horiekin.

Gehiago esango nuke, formakuntza derrigorrezkoa izan beharko litzateke ez hautazkoa. Horrez gain, ez nuke soilik prestakuntza emango eskolan kasu bat agertzen denean baizik eta kasua agertu baino lehen. Izan ere, agian AGHko haur gehiago izan ditugu baina prestakuntzarik ez dugunez, ez gara identifikatzeko gai izan.

Eskolan ematen den trataera

7) Ikastetxean, nola detektatzen dituzte haur hauek?

Imajinatzen dut prozesua honelakoa izango dela: lehenengoz tutorea zerbait nabaritzen du, beraz, gainontzeko irakasleei komentatzen die eta bai tutoreak bai gelara sartzen diren beste irakasleak behaketa jarraia egiten dugu aholkulariaren laguntzarekin. Ostean, aholkulariari horren berri ematen diogu eta berak beste behaketa bat egiten du. Behaketa horretan ikaslea maila altua ematen badu, aholkulariak baloratuko du Berritzegunera bideratuko duen ala ez. Berritzegunera bideratzen bada, hango aholkularia eskolara dator ikasleari proba batzuk pasatzera. Proba horietan ateratzen den emaitza familiarekin komentatzen da eta erabakiak hartzen dira.

8) Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)

Ez dudanez izan ez dakit. Baina eskola honetan erabiltzen dugun metodologia (proiektuak) aproposa dela uste dut, ikasle horrek gehiago eskatzen badizu gehiago emateko aukera duzu. Adibidez, irakurketa lantzen ari bagara eta ikasle horrek jadanik irakurtzen badaki beste motatako materiala prestatzen da, edota bere kabuz informazioa bilatzen du proiektua aberasteko; hortaz, libururik ez erabiltzeak aukera hori ahalbidetzen dizu. Beraz, proiektuekin oso ondo ibiliko zen, bakoitzaren erritmoa, beharrak, jakin-mina... errespetatzen delako.

Gainera, gu adin ezberdinekin gaudenez, ez dago arazorik bera baino nagusiagoak diren ikasleekin elkartu daitekeelako. Kasu honetan, harreman naturalak sustatuko ziren eta txikia bada, bera baino nagusiagoak diren umeekin harremandu daiteke, agian, bere interesak 5 urteko haurren antzekoak direlako. Horrez gain, txikiei gauzak beste era batean azaldu ahal die edota irakaslearekin batera beste ikasleei lagundu.

9) *Nork esku-hartzen du ikasle hauekin?*

Tutoreak, irakasleek, familiak, aholkulariak eta Berritzeguneak (behar izatekotan) esku-hartzen du.

10) *Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?*

Bai, oso garrantzitsua da eskola eta familia batera joatea, bestela oso zaila da aurrera egitea. Gainontzeko egoeretan bezala, haurrei ematen zaien erantzuna aberatsagoa izango da eskola eta familia elkarlanean aritzen badira, baina batez ere egoera berezia denean. Gainera, gurasoen eta irakasleen artean harreman ona badago hori haurrak ikusi egingo du, beraz, haren barnea ez da gatazkarik egongo eta horrek gehiago ikastera eta lasaiago ikastera bultatuko du. Bai eskolarentzat bai familiarentzat lasaitasuna sortuko du biak norabide berean joatea, horrela familiak nabarituko du guk ere haurraren hobekuntza bilatzen dugula eta haien seme-alaba inporta zaigula.

11) *Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiola hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektratu autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?*

Ohikoa da hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei edo ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza horiek bideratzera; izan ere, AGHko haurrei buruz pentsatu egiten da haiek bakarrik aurrera doazela, baina horiek ere arazoak izan ahal dituzte, portaeran adibidez.

Beraz, ez dira berdintzatzen hezkuntza-laguntza bereziak behar duten haurrak. Urteetan zehar arreta gaitasun urriko haurrengan zentratu egin da, eta besteak alde batera utzi egin dira. Hau da, baliabide guztiak hezkuntza behar bereziak dituzten umei zuzenduak egon dira eta hori aldatu beharreko gauza da. Nahiz eta Adimen Gaitasun Handiko haurra izan ez du esan nahi laguntza behar ez duenik; beste motatako laguntza beharko du, baina azkenean laguntza beharren arabera joaten da eta ez diagnostiko baten arabera.

12) Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?

Lehenengo gauza familiarekin elkarlanean aritzea izango zen, haiekin hitz egiten, zer behar duten galdetu... denok norabide berdinean joateko. Denok norantza berdinean joaten bagara gauzak errazago izango direlako.

Horrez gain, gainontzekoekin dituzten harremanak zaindu behar dira, etorkizunean arazorik ez izateko. Batez ere ikasle horiek gustura egoten saiatu behar dira. Batzuetan zaila izan daiteke, eta gainontzeko ikasleei ere azaldu behar zaie guztiok ezberdinak garela eta horrek ez du esan nahi beste pertsona txarto tratatu dezakegula. Egun batean, nik txarto erantzun dezaket baina hurrengo egunean *Pepe* izan daiteke txarto hitz egin didana. Azaldu hori ez dagoela ondo eta jarrera horiek aldatu behar ditugula baina horretarako guztion laguntza behar da.

Nire ustez garrantzitsuena formakuntza da. Prestakuntzarik gabe ezin dugulako aurrera egin eta ezin diegu haur horiei lagundu; gure laguntza behar dute era egokian garatzeko eta ulertuak sentitzeko, baina gu prest ez bagaude ezin dezakegu hori egin.

5.2. Adituak

3 PTen eta 2 aholkulariren transkripzioak.

Seigarren elkarrizketatua

PTa. 36 urte. 11 urte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa

1) *Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?*

Teorikoki kontzeptu horiek ezberdintzen badakit. Goiztiartasuna, ezagutza edo gaitasun batzuk bere adin kronologikoa baino lehenago garatzen dituen ikaslea da. Hala ere, esan behar dut, goiztiarra izatea ez duela esan nahi haur horrek AGHko ikaslea dela. Talentua, berriz, arlo batean nabarmentzen den umea da, hau da, matematikan oso ona da, baina gainontzeko ikasgaietan ez da hain trebea. Beraz, kasu honetan, zaila izango zen identifikatzea, izan ere, guztiok onak garelako arlo edo ekintza batean. Eta *superdotadoak*, maila intelektual handia duten haurrak dira, arlo askotan edo ia gehienetan onak direnak eta gainera ezagutza eta jakintza horiek erabiltzen dakiena.

Beraz, kontzeptuak teorikoki ezberdintzen badaki, beste gauza bat da, haurren artean hori nabaritzea eskolan dagoen errealitate oso zaila delako. Uste dut, ezberdintzen jakingo nukeela baina ez naizenez egoera horretan egon ezin dezaket ziur esan.

2) *Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?*

Identifikazio goiztiarra oso garrantzitsua da, horrek planifikatzen duzun esku-hartzea hobeto bideratzen laguntzen dizulako. Gainera, gaur egun, arreta goiztiarreko protokoloarekin lehenago identifikatu ahal dela uste dut, izan ere, protokolo hori 3, 4 eta 5 urteko gelan pasatzen denez, haur baten ezaugarriak item/galdetegi horretatik nabarmentzen badira, tutoreak edota aditu batek horri arreta eskaini ahalko dio eta behaketa zehatz eta jarraitu bat egin ahal zaio haur horri. Beraz, goiz identifikatzea umearentzat onuragarria izango da, bere beharrak identifikatuko direlako eta baita guri haurra hobeto ulertzen lagunduko digulako.

Nik uste dut, Haur Hezkuntzan identifikatu daitekeela. Hala ere, 2 edo 3 urteko gelan hori ikustea zaila iruditzen zait, ez nago esaten ezin denik, baina kasu argi bat izan behar dela pentsatzen dut. 4-5 urterekin ondo identifikatu daitekeela uste dut, haurra gaitasun gehiago erabiltzen hasten delako, jariokortasunez hitz egiten has daiteke... beraz, horiek pautu garrantzitsua izango dira haur horren identifikazioa egiteko.

3) *AGHko haur bat identifikatzen dakizu?*

Haur horren ezaugarriak ezberdinak direla jakingo nuke, baina zer gertatzen zaion jakitea edo zehazki zer zuen esaten ez nuke jakingo. Hala ere, PTak ez garenez AGHko hurrekin egoten, ez dakit egoera nola izango zen edo nola bideratuko nukeen. Guk Adimen Gaitasun Handiko ikasleentzat materiala prestatzen laguntzen dugu, baina ez gara gelan sartzen haiei laguntza eskaintzeko. Hori dela eta, ez nuke jakingo identifikatzeko gai izango nintzatekeen ala ez. Hala ere, laguntza behar badut ez daukat inolako arazorik laguntza eskatzeko, denok momentu batean edo bestean laguntza behar izaten dugulako eta garrantzitsuena haurren ongizatea da.

4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Adimen Gaitasun Handiko hurrek, gainontzeko hurrek bezala, haien artean ezberdintasunak dituzte; beraz, batzuetan, batek dituen ezaugarriak beste batek ez ditu. Baina, egia da, ezaugarri komun batzuk izan ahal dituztela, adibidez, ikasteko gogoia izan ohi dute, jarrera aktiboa erakusten dute gelako ekintzetan, jakin-min handia, memoria ona izan ohi dute, irudimen eta sormen asko izaten dute (ez denek)... Gainera, orokorrean hizkuntza aberatsa dute eta mezuak ondo adierazteko gaitasun handia dute.

Egia da, normalean arlo akademikoan jartzen dela arreta gehiena baina ez dugu ahaztu behar nahiz eta AGHko ikaslea izan oraindik haurra dela eta haren alderdi afektiboa eta emozionala zaindu behar dugula, batez ere haur hauekin. Normalean, ume hauek erlazionatzeko zailtasunak izaten dituzte eta horrek ikaskideekin harremantzeko zailtasuna ekartzen dizkie, beraz, garrantzitsua izango da alderdi hau zaintzea etorkizunean arazorik ez egoteko.

Orain aipatu ditudanak ezaugarri orokorrak izan dira, haurraren arabera baliteke hauek aldatzea. Dena den, ez dakizkit denak, behar izatekotan Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Adimen Gaitasun Handiko Orientabideen dokumentuan begiratu beharko nuke.

5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Egia esanda PTak ez gara Adimen Gaitasun Handiko hurrekin asko egoten. Hau da, nik bi ikasle izan ditut AGHekin baina bi kasu horietan soilik materiala prestatzera mugatu naiz, ez nintzen gelara sartzen nire laguntza eskaintzeko, sistemak horrela

markatzen duelako. Beraz, ez nuke esango Adimen Gaitasun Handiko ikaslerik izan dudana; haien jarraipena pixka bat jarraitzen nuen materialetan aldaketak egiteko baina ez zen nire ikaslea.

Prestakuntza

6) *Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Ez dugu inolako laguntzarik jasotzen haurren detekzioa egiteko. Egia da, Berritzeguneko arduradun bat etortzen dela haurari behaketa egitera, baina hori ikastetxean zerbait detektatu delako da; beraz, ez dugu laguntzarik.

Adimen Gaitasun Handiko haurrak hezkuntza bereziaren barruan sartzen dira, baina ez dute PTaren, nire, laguntzarik izaten; hortaz, ez dauka zentzurik multzo horretan haurrak sartzea eta horren ostean haientzako laguntzarik ez egotea. Nire ustez, laguntza gehiago egon beharko zen, haiek ulertuak sentitu behar direlako eta hori gertatzeko laguntza behar dute bere burua onartzeko eta horrela besteekin erlazio onak izateko. Horrez gain, materialen prestakuntza era egokian egiteko lan handia eta denbora asko behar da. Beraz, baliabide pertsonalak eskasak direla iruditzen zait.

Baliabide materialak, beste gauza bat dira, izan ere, hobeto edo txartoago aurrera ateratzen saiatzen gara eta beste ikastetxe batzuetan funtzionatzen dena praktikara eramaten dugu.

Prestakuntza... ba.. ez dugu prestakuntzarik jasotzen, beraz, zaila da erantzun egokia ematea. Hori dela eta, arlo guztietan formakuntza jaso beharko genuke.

Eskolan ematen den trataera

7) *Ikastetxean, nola detektatzen dituzue haur hauek?*

Bi detekzio mota egon daitezke. Alde batetik familiak egiten duena eta bestetik ikastetxean bertan egiten duguna. Familiak detektatzen badu, batzuetan, guri esaten digu eta guk protokoloa martxan jartzen dugu. Baina beste aukera bat da, familiak zerbait identifikatzea eta horrez gain, haurra kanpoko zerbitzu batera eramatea eta han AGHko haurra den ala ez esan diete. Kasu honetan, familiak tutorearekin biltzen dira eta gero tutoreak aholkulariari komentatzen dio bileran hitz egiten dutena. Ondoren, aholkularia familiarekin biltzen da eta behar izatekotan Berritzegunearekin

kontaktuan jartzen da. Azkenik, Berritzeguneko arduradunak erabakitzen du haur hori Hezkuntza Premia Berezien zerrendan sartuko duen ala ez.

Beste bidea ikastetxean detektatzea izango zen. Normalean, tutoreak detektatu egiten du eta bera da aholkulariari abisua pasatzen diona. Beraz, aholkulariak eskala batzuk pasatzen dizkio tutoreari eta berak behaketa jarraia egin behar du eskalan jartzen dituen itemak errespetatuz. Aholkularia ere behaketak egitera sartzen da. Behin eskala horiek beteta koordinazio bilera bat antolatzen da eta aholkulariak informazioa hartzen du. Horrekin txosten bat idazten du eta bera da erabakitzen duena kasu hori Berritzegunera eraman behar den ala ez. Baietz erabakitzen badu, Berritzeguneko pertsona bat dator umeari froga batzuk pasatzera eta froga horietan ateratzen diren emaitzak familiarekin partekatzen ditu. Hortik aurrera erabakiak hartzen dira, ea materiala egokituko zaion ala ez, zer motatako ariketak egin ahal diren, ze alderdietan jarriko da arreta gehien...

8) *Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)*

Uste dut, haur hauek denbora guztian aktiboak egon behar dira, baina horretarako garrantzitsua izango da haien beharrak, nahiak, interesak, motibazioa... etengabe behatzea eta behar eta nahi dutena eskaintzea; ikasteko gogo horiek aprobetxatu behar ditugulako. Egia da PT bat gelan sartuko bazen, irakaslearentzat behar horiek identifikatzea errazagoa izango litzateke eta horrela materialen prestakuntza ere era egokian bideratu zitekeen.

Aukera bat aberaste Curricularra izango litzateke, eta hori bideratzeko "pentsateka" oso erabilgarria da. Normalean gelaren atzeko aldean egon ohi da eta ez da soilik AGHko umeentzat baizik eta ikasle guztiek erabili ahal duten txokoa da. Hala ere, egokiagoa ikusten dut, haur hauek sakontasun handiagorekin gaiak lantzea eta ez gai gehiago lantzea.

Proiektuak, txokoak, talde elkarreragileak... aukera onak izango lirateke bai ikasle hauentzako bai gainontzeko ikasleentzako. Izan ere, metodologia hauek aukera ematen dutelako bakoitza bere erritmoan ikasteko, sakontasun gehiago edo gutxiagorekin gaiak lantzeko, idazteko eta irakurtzeko, informazioa bilatzeko, bakoitzak taldean bere tokia aurkitzeko, besteekin lankidetzan aritzeko, besteekin harremanak izateko... Beraz, alderdi guzti hauek ikasle guztientzako onuragarriak dira. Hori dela eta fitxak alde batera uzteko unea heldu da.

9) *Nork esku-hartzen du ikasle hauekin? (tutoreak, arloetako irakasleak, aholkulariak, laguntzako irakasleak...).*

Momentuz tutoreak, aholkulariak eta Berritzeguneak esku-hartzen dute ikasle hauekin. Baita nik ere (PTa), baina beste era batean, materiala prestatzen, baina ez gela sartzen. Horrez gain, familia ere prozesu osoan zehar presente egoten da baita gainontzeko irakasleak ere (baina errealitatea ez da horrela).

10) *Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?*

Bai, egoera guztietan bezala familiarekin elkarlanean aritzen bagara gauzak errazago irtengo dira eta umearentzat hobeto izango da, batez ere kasu berezi hauetan. Garrantzitsua izango da, familia eta eskola bide berdinean joatea eta ahal den neurriak erabakiak batera hartu beharko ziren. Egia da, ezin garela aspektu guztietan konforme egon baina horretarako bilerak antolatzen ditugu eta akordio batera heltzen saiatzen gara haurraren garapen integrala era egokian ziurtatzeko. Familiak ere detektatu dezake.

11) *Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiola hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?*

Ez, ez zaie trataera berdina ematen, hau da, ikastetxeetan dauden errekursoak oso eskasak dira eta hauek Hezkuntza Behar Bereziak edo ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzat bideratzen dira. Egia da, orain gauzak aldatzen ari direla, baina oraindik ezin dezaket esan parean daudenik. Hala ere, zorionez, orain haur hauek arreta behar dutela konturatu gara eta espero dut hemendik urte gutxira denek parean egotea.

12) *Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?*

Hiru gauza aipatuko nituzke ikasle hauei ematen zaien erantzuna hobetzeko. Lehenengoa formakuntza izatea da, bigarrena PTaren laguntza izatea (bai gela barruan bai gela kanpoan) eta haur hauen emozioak lantzen hastea gainontzeko arloetan lan egin ahal izateko.

Zazpigarren elkarrizketatua

PTa. 32 urte. 7 ikasturte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa*1) Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?*

Nire ustez, talentua denok daukagu zerbaitetan; adibidez, haur bat talentua izan dezake musika arloan, beste batek matematika arloan, beste batek harremanetan... Talentu apartekoak edo superdotado: talentu bat barik hainbat arloetan onak dira, hau da, talentu asko dituen eta gainera talentu horiek erabiltzen dakiena. Goiztiarra esango nuke, hitzak esaten duela, goizago gaitasunak berenganatzen dituen da, bai kognitiboki bai psikomotrizitate aldetik... arinago doanean.

Beraz, ikasle bat goiztiarra den ala ez ezberdintzea, ba... imajinatzen dut konparaketak egingo nituela beste ikasle batzuekin; orduan, ezberdintzen jakingo nukeela uste dut. Baina talentua eta talentu apartekoak ezberdintzea... ez dakit, esan ahal duzu ume bat oso oso ona dela baina superdotado izate hori... zer da?, noraino heltzen da?... orduan, astiroago ibiliko nintzateke.

2) Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?

Bai, oso garrantzitsua dela pentsatzen dut, eta lehen bait lehen egin behar dena. Orain 2 urterekin eta 4 urterekin arreta goiztiarreko item batzuk pasatzen dira, hau da, galdetegi bat, jakiteko haurra bere mailan dagoen ala ez. Uste dut horrek asko laguntzen duela, gerora edo momentuan, esku-hartze bat egiteko.

Nik uste dut, Haur Hezkuntzatik zerbait nabaritu daitekeela eta gero edukiak lantzen hasten garenean: kognitiboa, pentsaera, hizkuntza, komunikazioa... agian hori Lehen Hezkuntzako lehen mailan argiago ikusten da, baina Haur Hezkuntzan ere identifikatu daiteke, 4-5 urterekin.

3) AGHko haur bat identifikatzen jakingo zenuke?

Ume horrek zerbait daukala ikusiko nuke baina agian ez nuke jakingo identifikatzen zer izango zen. Hala ere, bai jakingo nuke zerbait berezia edo aparteko gaitasunak dituela.

4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Iaz AGHko ikasle bat izan nuenez, ezaugarri komun batzuk badakizkidala esango nuke; adibidez, hizkuntza gaitasun ona dute, harremanetan liderrak izan daitezkeela, lanak azkar bukatu ahal dituztela, haien interesak eta motibazioak handiak izan ohi dira, kontzentrazio maila altua izan ohi dute... Baina gainontzeko haurrak bezala, haien artean ezberdinak direnez ezaugarri horiek aldatu daitezke.

5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Iaz Adimen Gaitasun Handiko ikasle bat izan nuen, eta nire lehenengo ikaslea izan zen gaitasun horrekin, edo behintzat nik jakinda. Agian aurretik gehiago izan ditut baina ez didate ezer esan, beraz, oso onak direnak izan ditut. Baina hau, AGHko ikasle bat zen Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan zegoen eta iaz asko ikasi nuen. Horrekin ez dut esan nahi AGHko haur guztiak ezaugarri berdinak dituztela baina batzuk orokorrak izan daitezke guztiontzat. Adibidez, gai batzuetan, orokorrean denetan, asko zekien eta hori komunikatzeko gai zen hizkuntza aberatsa erabilita. Kasu honetan, euskaraz hitz egiten zuen euskal giroan bizi zelako baita ingelesez ere; orduan hizkuntza aldetik ona zen. Gero, lehenengo mailako lanak oso azkar bukatzen zituen, oso errez egiten zituen eta gainera, berak beste lan batzuk ere bazituen, beraz, hor ikusten duzu maila bat gainditu duela eta gehiago eskatzen dizula (horiek ere ondo egiten zituen.)

Harremanetan lidertza bat izan ahal dutela uste dut, estrategia asko ezagutzen dituztelako (bere adinekoak ezagutzen ez dituztenak), badaki harreman onak nola eramane baina baita besteak nola manipulatu ere, hau da, bere ideietara eramatea. Interesa eta motibazio asko dituzte, beti egoten zen galdetzen.

Baina gero ere uste dut, puntu bat heltzen dela zeinetan gelan aspertzen diren, orduan, une oro haien gainean egon behar zara.

Beste ezgaitasun edo beste gaitasun batzuk dituzten umeak bezala, berari dagozkion materialak edo lanak eman behar dizkiozu. Guk egiten genuena bazen, lehenengo mailakoek eta bera gai bat jorratzen zutenean, AGHko haurrak gai hori sakonago jorratzen zuen eta gainera, azalpenak ematen zituen. Askotan erabiltzen genuen besteoi azalpenak emateko. Honek sormena ez zuen hain garatua.

Nik izan nuen ikaslearekin, bere jarrera ez zen oso egokia, eta batzuetan arazoak sortzen zituen baina batez ere bere familiak. Beti esaten zuen aspertzen zela, ematen

zenion lan bat, ematen zenion beste bat... baliabide ezberdinak erabiliz, gauza ezberdinak egiteko eta umeak nahiago zuen besteek egiten zutena egitea. Eta esaten zenion, “zuk gehiago egin ahal duzu”, “zuk beste era batera egin ahal duzu”, baina asko kostatzen zitzaion zeukan ezberdintasun hori onartzea. Berak bazekien ezberdina zela eta konturatzen zen besteak baino ideia gehiago zituela edo azalpenak gehiago garatzen zituela, lanak arinago bukatzen zituela... baina horrek harremanetan ezberdintasun bat ekartzen zion, beraz, umeak ez zeukan ondo onartuta.

Gainera, kanpotik ikusita irakasle moduan, familiak haurrari presio asko jartzen zion. Kanpoko ekintza asko zituen, hau da, arratsalde guztia egoten zen ekintzak egiten eta ez kiroleko ekintzak baizik eta ingelesa, musika... Gero etxera joaten zen eta asteburuetan mendira joaten ziren, baina mendira joaten zirenean gurasoek yinkanak prestatzen zituzten, “ze zuhaitz da hau?”, “zuhaitz honek zein motatako hosto ditu?”, “nolakoak dira hostoak?”... Horrez gain, irakasle taldeak hartzen zituen erabakietan ere gora-beherak izan genituen ados ez zeudelako. Haien pentsatzen zuten esku-hartu ahal zutela erabaki horietan eta ez zuten ikusten hori gure lana zela, “guk entzungo zaituztegu baina hemendik aurrera ezin zarete sartu”. Oso urte zaila izan zen. Azkenean, guraso bezala hoberena nahi dute, baina gurasoentzako hoberena zena ez zen haurrarentzat egokiena, bere emozioak eta sentimenduak kontuan hartu behar direlako erabakiak hartzen direnean, ez bakarrik arlo akademikoa.

Hortaz, normalean soilik materiala prestatzera mugatzen naiz.

Prestakuntza

6) *Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Laguntza egon beharko litzateke, lanak bere erara moldatu behar direlako edo lan gehiago prestatu behar duzulako, baina laguntza PT moduan gelan sartzeko ez dut beharrezkoa ikusten, baina materialak prestatzeko bai. Lana aurrera ateratzeko oso autonomia zenez ez dute laguntzarik izaten; behaketa eta esku-hartzean bai baina gainontzekoan ez. Honekin ez dut esaten laguntzarik ez dutela behar, hots, nire ustez momentu batzuetan laguntza behar dute, psikologikoki ere prestatuak egon behar direlako, emozioak landu behar dira (gauzak sentimendu askorekin hartzen dituztelako)... beraz, alde horretatik laguntza behar dutela uste dut, baina gelan

bertan laguntza emateko ez; hots, emozioak lantzeko, gai pertsonala denez, gelatik kanpo egin behar da.

Ez dugu prestakuntzarik jasotzen. Baina ez gai honetarako ez beste gai batzuetarako ere ez. AGHko haurrei buruz nik gogoratzen dut unibertsitatean zerbait landu genuela baina hautazko ikasgai bat izan zen eta ostean ez dut gehiagorik jaso. Ez zait eskoletan prestakuntza hau tokatu; hala ere, iazko eskolan ikasle hau detektatua zegoenez formatzen hasiko zirela badakit baina aurretik ez zegoen inolako prestakuntzarik egon.

Behin guraso batzuk esan ziguten Aupatuz elkartean hitzaldiak ematen zituztela eta nahi bagenuen haiek hitzaldiren bat ematera etorriko zirela, baina urte horretan ez zen gertatu; imajinatzen dut aurten formakuntzaren bat hartuko zutela.

Oso beharrezkoa da formakuntza arlo guztietan jasotzea, nola tratatu jakin behar dugulako, zein behar dituzten eta zeintzuk ez... guk lana era egokian planteatzeko eta planifikatzeko.

Eskolan ematen den trataera

7) Ikastetxean, nola detektatzen dituzte haur hauek?

Ba, imajinatzen dut protokoloa jarraituko dela. Ikusten duzu ze zailtasun edo ze gaitasun dituen ume horrek eta behatzen hasten zara. Behaketa bat egiten duzunean, gero lankideekin harremanetan, kolaborazioan eta guztion lana eta laguntzarekin, aurrera joaten zara. Garrantzitsua da elkarlanean aritzea, izan ere, beste lankide eta lagunei esker asko ikasten duzu, beraz, denon kolaborazioa eta kooperazioa ezinbestekoa dela uste dut. Hortaz, eskolan behaketa egin da (aholkularia barne) eta Berritzeguneko aholkularia etortzen da, hark froga batzuk pasatu dizkio eta AGHko haurra dela ematen badu, hortik aurrera erabakiak hartu behar dira, esku-hartzeak prestatu... eta familiarekin harreman estua izan.

Batzuetan familiak detektatu egiten du edota gu ez gara ausartzen esatera AGHko haurra dela, guk oso ona dela esaten dugu eta familia da mugitzen hasten dena, beraz, hemen prozesua antzekoa da.

8) Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)

Nik uste dut aktibo egon behar direla, ezin dezakegula aspertzen utzi, ez beti paperezko lana baita beste lan, metodo eta baliabide batzuk erabilia ere. Baina beti *piztuta* izan behar ditugu, gainera, laguntza emateko erabili dezakegu.

Gero, behin detektatuak daudenean eta behin esku-hartzea prestatuta dagoenean, mailaz igo badaiteke, igotzea. Azkenean, haien aurrezagutzak erabili behar dira aurrera egiteko. Maila altuago batean egon ahal bada eta eramaten duten metodologiara moldatzen bada, ni horrekin ados.

Aberaste Curriculum a egin daiteke, hau da, gelaren atzeko aldean txoko bat jarri, non haurrak lanak amaitzen dituztenean horra joan daiteke, baina ez da soilik berarentzat baizik eta denontzako txokoa da, denok gehiago ikasteko. Esate baterako, arreta, kontzentrazioa, ezberdintasunak, memorizatikoki, bisualki lan egiteko... ekintza ezberdinak daude; adibidez, pentsateka.

Horrez gain, denbora guztian haur honen beharrak antzeman behar dituzu eta bai baliabideak bai materialak aldatu hark ez aspertzeko. Hortaz, bere beharrak, jakin-mina, interesa, motibazioa... asetzen dituen metodologia bat jarraitzea egokiena izango litzateke, adibidez, proiektuak edo talde elkarreragileak.

9) *Nork esku-hartzen du ikasle hauekin?*

Tutorea, familia, irakasle taldea (egokiena litzateke baina ez da askotan gertatzen), aholkularia, PTa (materiala prestatzeko) eta beharrezkoa bada Berritzeguneko aholkularia.

10) *Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?*

Bai, ezinbestekoa da eskola eta familia elkarlanean aritzea umearen ongizaterako. Izan ere, bakoitzak era batean lan egiten badu haurrak ez du behar bezala aurrera egingo, beraz, bi noranzko informazioa egotea funtsezkoa da. Egia da, normalean familia hauek oso zailak izan ohi direla, hots, beti bere seme-alabarentzat hoberena bilatzen dute baina batzuetan soilik arlo akademikoa kontuan hartzen dute eta alde pertsonala eta emozionala ahaztu egiten dute. Hortaz, batzuetan ikastetxearen eta gurasoen erabakiak ez direnez berdinak izaten, gora-beherak egoten dira.

11) Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiola hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?

Nik uste dut arreta gehiago jartzen dela besteetan (Hezkuntza Behar Bereziak dituzten ikasleak eta ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak), ze Adimen Gaitasun Handiko haur hauek ahaztuak egon dira.

Beraiek aurrera egiten dutenez eta lanak bukatzen dituztenez, gelan alde batean egon dira, besteei egiten genien kasu. Baina orain dela urte gutxi konturatu gara haiek ere arreta behar dutela eta aurrera atera behar ditugula, hau da, gure laguntza behar dutela. Orduan, uste dut ez zaiela kasu berdina egiten, ez zaiela berdin tratatzen... haiek ere laguntza behar dute.

12) Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?

Nik uste dut, haurren gaitasun eta talentu horiek atera behar direla eta ateratzeko baliabideak, denbora eta espazioa eman behar dizkiegu. Ume horiek ulertu behar ditugu eta baita haien familiak ere. Askotan ez dira umeak soilik, familiak ere dira, hortaz, ulertzen saiatu behar gara. Horrez gain, irakasleen koordinazioa, kooperazioa eta parte hartzea ezinbestekoa da kasu hauetan.

Ume hauek oso sentiberak direla jakinda, ondo hitz egin behar zaie, gauzak ondo azaldu, arazoren bat badago edo zerbait gertatzen bada gure hitzak neurtu behar ditugu. Edukien aldetik, eman ahal zaion guztia eskaintzea, azkenean baliabide asko ditugu eta guztiak erabili behar dira, hau da, berak egin ahal dituen gauza guztiak egitea, ekin eta ekin.

Zortzigarren elkarrizketatua

PTa. 32 urte. 6 urte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa

1) *Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?*

Goiztiartasuna, ezagutza batzuk bere adin kronologikoa baino lehenago barneratzen dituen. Talentua, arlo batean edo gehiagotan ona dena eta, talentu apartekoa, arlo guztietan ona eta orekatua dena.

Beraz, 3 termino hauen ezberdintasuna dakidala esango nuke, baina egia da, gure artean ez dela ohikoa termino hauek erabiltzea, guk Adimen Gaitasun Handiko ikaslea dela esaten dugu. Egia da, ezberdintasuna dagoela hiruren artean, eta hori dokumentuan islatzen dela, baina hitz egiterako orduan ez ditugu ezberdintzen.

2) *Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?*

Goiz identifikatzea ezinbesteko dela uste dut, izan ere, adin goiztiarrekin identifikatzen badugu esku-hartzea egokiagoa izango da. Egia da, batzuetan goiz identifikatzea zaila dela eta etiketak jartzen direla. Nire ustez, beharrezkoa da honelako identifikazioa egitea, izan ere, horrela badakigu haurrak ze behar dituen eta zergatik horrelako jarrera duen. Beraz, hori jakinda haurra ulertuagoa sentitu daiteke. Horrez gain, garrantzitsua izango da bere kideekin hitz egitea eta azaltzea denok ezberdinak garela eta gaitasun ezberdinak ditugula. Beraz, denon artean lagundu behar gara lana aurrera ateratzeko. Nahiz eta honakoa 5 urteko gelan azaldu, haiek gai izango dira ulertzeko edo behintzat ohartzen joango dira denok ezberdinak garela.

Ze adinetan identifikatu daiteke? Ba... Haur Hezkuntzako 4-5 urteko gelan identifikatzea posiblea izango litzateke. Eta baita lehenago ere, baina zailagoa izango litzateke, beraz, nik 4-5 urterekin detektatu daitekeela esango nuke.

3) *AGHko haur bat identifikatzen dakizu?*

Egon naizen ikastetxeetan ez zait egokitu ikasle horiekin egotea, are gehiago, nik jakinda ez da egon. Beraz, identifikatzen jakingo nukeen ala ez... ba... ez dakit. PT moduan zaila iruditzen zait, izan ere, ni gelara sartzen banaiz Hezkuntza Behar Bereziak dituen haur batekin egoteko da, eta normalean, hauek nire arreta guztia erakartzen dutenez, ez daukat denborarik gainontzeko ikasleei arreta eskaintzeko.

Egia da, gelan nagoenean beste ikasleek laguntza behar badute laguntzen dudala, baina beti begi bat “nire ikaslean” izaten.

Hala ere, denbora baldin badut eta klasean denoi laguntza eskaintzeko sartzen banaiz, agian, haur horrek dituen aparteko gaitasunaz ohartuko nintzateke edo gutxienez, zerbait berezia duela, eta bai bere tutorearekin bai gainontzeko irakasleekin komentatuko nuke eta jarraitu beharreko pausuak jarraituko nituzke. Baina ezin dut ziurtasunez esan identifikatzen jakingo nukeela.

- 4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Denak ez dakizkit, baina orokor batzuk bai. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako hezkuntza orientabideen Adimen Gaitasun Handiko haurrentzat dokumentuan ezaugarriak agertzen dira. Ez soilik ezaugarri orokorrak baizik eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako adierazleak agertzen dira.

Ezaugarri komun batzuk, adibidez, jaki-min handia dute gai askotarako, hizkuntza gaitasun handia dute, arreta denbora luzez mantentzeko gai dira, ikasteko gogoak dituzte, abstrakzio maila handia dute, emozioen aldetik zailtasunak dituzte, haien adinekoekin erlazionatzea kostatzen zaie, jolas logikoak gogoko dituzte... Nahiz eta, hauek ezaugarri orokorrak izan, kasu batean aurrean aurkitzen banaiz, dokumentua begiratuko nuke eta behar izatekotan laguntza eskatuko nuke edota irakasle eta aholkulariaren iritziak entzungo nituzke.

- 5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Ez dut aukera hori izan, ni egon naizen eskoletan ez zegoelako, edo behintzat nik ez nekien zegoenik.

Prestakuntza

- 6) *Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Normalean, ez da gai honen inguruko hitzaldirik edo formakuntzarik egoten. Badakit Eusko Jaurlaritzak AGHko ikasleen orientabideen dokumentua dagoela eta hori oso ondo dagoela, beraz, hori euskarriztat hartzen dut.

Uste dut, prestakuntza behar dela, bai Berritzegunean bai eskoletan, eta klaustro osoari zuzenduta. Gainera, nik uste dut prozesu osoan formakuntza behar dela, izan

ere, ni hasierako detekzioan formatuta banago baina gero ez badakit mekanismoak martxan ipintzen edo protokoloak erabiltzen... ezin duzu lan egoki eta on bat egin. Orduan, inportantea prozesu osoan formatzea da eta ez soilik arlo batean.

Eskolan ematen den trataera

7) Ikastetxean, nola detektatzen dituzue haur hauek?

Orokorrean tutorea da ohartzen dena. Kasu horretan tutoreak aholkulariari horren berri ematen dio eta aholkulariak tresna eta baliabide ezberdinak ematen dizkio behaketa sakona egiteko. Behin behaketa eginda, biak batzartu egiten dira eta aholkulariak informazio guztia dokumentu batean jasotzen du bere behaketarekin kontrastatzeko. Ondoren, aholkulariak erabakitzen du kasua Berritzegunera eramango duen ala ez. Ez bada eramaten, horrela geratu egiten da. Baina Berritzegunera eramaten bada, hango aholkularia ikastetxera dator eta haurrari proba batzuk pasatzen dizkio. Behin emaitzak izanda aholkularia, Berritzeguneko arduraduna eta familia elkartu egiten dira horren inguruan hitz egiteko eta erabakiak hartzeko. Amankomuneko lana oso garrantzitsua da.

Baliteke, familiak horretaz konturatzea eta beraiek tutoreari haien kezka azaltzea. Kasu horretan tutoreak aholkulariari esaten dio eta prozesu berdina jarraitzen da.

8) Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)

Egia esanda ez dakit asko honen inguruan, baina egokiena uste dut haur haien beharrak eta interesak asetzen duen metodologia erabiltzen dela. Baina, zein da metodologiarik egokiena? Ba... hori ezin dizut esan kasu bakoitza ezberdina delako eta nik ez dakit nola esku-hartzen duten haur hauekin gelan, oso zaila iruditzen zait.

Nik ez dut parte hartu baina badakit Curriculumak aberasten dela eta baita kurtsoz igarotzea ere.

9) Nork esku-hartzen du ikasle hauekin?

Gehienbat tutoreak, baina aholkulariak ere parte hartzen du identifikazio prozesu horretan. Baita Berritzeguneak eta familiek ere. Uste dut, kasu honetan, irakasle guztiek parte-hartu behar zutela, azkenean ikasle hori, ez da soilik tutore horrena baizik eta ikastetxe osoko ikaslea da; beraz, denon ardura izan beharko litzateke. Baina errealitatea ez da horrela, tutoreak zama asko darama ikaslearekin.

Ikasle hauek ez dute aparte laguntzarik jasotzen, eta tutoreak lan hori bera bakarrik aurrera eramatea oso zaila da, norbaiten laguntza izatea oso lagungarria da; gelan bakarrik ez dagoelako eta beste haurren beharrak ere asetu behar dituelako.

10) Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?

Bai eta gainera oso garrantzitsua da. Kasu batzuetan familia da identifikatzen duen lehenengoa. Familia eta eskola prozesu osoan zehar elkarrekin egotea ezinbestekoa da, horrek erraztasuna ematen duelako eta baita konfiantza ere. Familiak eskolan konfiantza badauka, gu hartzen ditugun erabakiak, nahiz eta beraien iritzia berdina ez izan, uste dut onartuko dutela; azken finean, gu profesionalak gara eta haur horrentzako irtenbiderik egokiena aurkitzen saiatuko gara.

Egia da, idealena, familia eta eskola erabakietan ados egotea dela, baina hori ez da beti gertatzen, beraz, gu saiatu behar gara, gure erabakia arrazoitzen familia lasai geratzeko eta haurrari ematen zaion erantzuna ona izateko. Beti familiarekin kontaktuan egon behar gara eta amankomuneko lan bat egin behar da.

11) Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiola hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?

Arreta berdina eman beharko zitzaaien hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasleei, baina errealitatea ez da hori. Arreta gehiago eskaintzen zaie helburuetara heltzen ez diren haurrei eta besteak “alde batera” uzten dira, haiek bakarrik aurrera egiten dutelako. Egia da, azken 5-6 urteetan gauzak aldatzen joan direla eta orain, behintzat, AGHko haurren inguruan hitz egiten da eta erantzun bat bilatzen saiatzen gaude, baina oraindik bidea geratzen da.

12) Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?

Gai honekin lan asko egin behar da oraindik, uste dut jendea ez dagoela gai honetan jantzita/formatua eta beharrezkoa ikusten dut. Beraz, hobekuntza hori izango litzateke: formakuntza gehiago jasotzea haur hauen beharrak asetu ahal izateko.

Bederatzigarren elkarrizketatua

Aholkularia. 52 urte. 28 urte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa

1) Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?

Bai eta gainera ikastetxean kasu desberdinak ditugu. Goiztiartasuna, heldutasun maila lehenago garatu duena da, hau da, heldutasun normala izaten duten ikasleak dauzkagu, atzeratuak dutenak eta gero goizago joaten direnak. Zentzu horretan ez dago ezer berezirik, bakarrik ikusten duzuna da ikasle horrek aspektu batean bestek baino goizago heltzen dela; baina ez duzu ezer berezirik ikusten.

Talentua: oso ona izan ahal zara musikan, gorputz hezkuntzan... eta gainontzeko arloetan normal. Guk badaukagu talentua duen ikasle bat baina ez da Adimen Gaitasun Handikoa. Nik irakurri dudanaren arabera eta hartu dudan formakuntzaren arabera, gaitasun handiko ikasleak daude eta hor barruan badago sartuta talentu handia duena baina *talentoso* izan al zara matematikan eta ez beste arlo batean.

Talentu apartekoak: arlo askotan onak direnak.

2) Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?

Ezinbestekoa da identifikazio goiztiarra egitea. Orain jarraitzen dugun protokoloak pista asko ematen dizkigu jakiteko zein garapenaren aspektuan egin behar dugun indarra. Horrekin lotuta, protokolo honek lagundu egiten digu, ikasle bakoitzari dagokion esku-hartze plana planteatzeko, programazioaren aldetik, baina ez diagnostiko bat egiteko.

Arreta goiztiarra, ez dator bat diagnostikoarekin, baizik eta esku-hartzearekin eta ikasle bakoitzaren beharrei erantzuteko aspektuarekin. Arreta goiztiarraren protokoloa ikasle guztiei pasatzen zaie, 3, 4 eta 5 urteko gelan. Gainera, nik uste dut 2 eta 3 urteko gelan lehenengo epea urritik azarora pasatzen dela eta bigarren epea otsailetik martxora.

Aurten Haur Hezkuntzan identifikatzen ari gara baina egia da kasu gehienak 4 eta 5 urteko geletan identifikatu daitezkeela, hor hizkuntzarekin kontaktuan hasten direlako baita grafiarekin eta kontzeptu matematikoekin ere. Baina batez ere haur hauek abstrakzio maila handia izan ohi dute.

3) *AGHko haur bat identifikatzen jakingo zenuke?*

Bai, egiten duguna protokolo bat jarraitzea da. Alde batetik Rezulli eskalak ditugu eta bestetik, beste elementu batzuk kontuan hartu behar ditugunak. Hau da, zentro bateko aholkulariek ezin dugu AGHko haurra identifikatu, ezin dugu ziurtatu Adimen Gaitasun Handiko ikaslea dela. Baina hasierako behaketa bat egiten dugu. Behaketa hori egiteko tutoreak egin duen behaketa kontuan hartzen dugu; behaketa horretan zenbait arlo begiratzen dira, hala nola, gizarte maila, kognitiboki daukan maila, pertzepzioki duen gaitasuna, haurraren gustuak...

Nik datu horiek biltzen ditut eta txosten bat egiten dut. Horren arabera, Berritzeguneko aholkulariari informazioa pasatzen diot eta berarekin kudeatzen dut. Berritzeguneko aholkulariak uste badu informazio guzti horrekin nahikoa ez dela Adimen Gaitasun Handiko ikaslea izan daitekeela jakiteko, froga batzuk pasatzen dizkio; horietako bat WISC-a izan daiteke (gehien erabiltzen dena da), eta gero beste froga batzuk daude adibidez, abstrakzio maila neurtzeko baita sormena eta irudimena neurtzeko ere. Frogak beti Berritzegunekoek pasatzen dituzte, nik adibidez Proleit bat pasatu dezaket, baina gaitasunak neurtzeko frogak normalean Berritzeguneko arduradunak pasatzen ditu.

4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Bai, AGHko haurrek ezaugarri komun batzuk dituzte, adibidez, beraiek orokorrean oso abstrakzio maila inportantea daukate, berehala ikusten duzu lanak amaitu dituztela eta amaitzen dituztenean kalitatezko lanak direla, lanak ondo aurkezten dituzte, oso galdera interesgarriak egiten dituzte.... Gero ere ikusten da bere burua nahiko kokatuta dutela eta dena ordenean mantentzen dutela, gainontzeko ikasleei laguntzen diete, hizkuntza maila oso ona da, beraien interesak beste aspektu batzuetara bideratuta daude, lan gehiago eskatzen digute...

Dena den, emozionalki, afektiboki edo harremani dagokionez, batzuetan arazoak ikusten dira, hau da, besteekin harremana izatea kostatzen zaie, normalean, haien interesak desberdinak direlako. Gehiago zehaztuz gero, Adimen Gaitasun Handiko haurrari unibertsoaren gaia asko gustatzen zaio baina bost urteko haur batek ez du hori ulertzen, orduan arazoak dituzte besteen lekuan jartzeko; hau da, empatia falta izaten dute. Gainera, batzuetan sufritu egiten dute eta gerta liteke frakaso ere egotea,

haien beharrei ez diegulako erantzuten. Emozioen aldetik ez dira gai hori kudeatzeko, ez dakite nola jokatu behar duten gela arrunt batean.

5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Bai, aurten badago bat 5 urteko gela batean eta Lehen Hezkuntzako bigarren mailan beste bi daude. Bigarren mailako baten kasuan, hasieran Adimen Gaitasun Handiko haurra izan zen baina beste froga batzuk pasatzerakoan *talentoso*a izan daitekela uste dugu, etxean oso estimulatuta dagoelako.

Bigarren mailan beste bat dago. Berarentzat aberastasun Curricularra prestatu dugu, beno, prestatzen ari gara. Hala ere, aparteko materiala dugu gaiak sakontasun gehiagorekin landu ahal izateko; baina gertatzen dena da berak ez duela nahi aparteko lan horiek egitea, hau da, besteek egiten dutena egin nahi du. Bera badaki materiala hor dagoela (jokoak, jolasak, logika lantzeko...); beste era batera esanda, hainbat elementu edo baliabide desberdinak ditu gaiak sakontasun handiarekin lantzeko, beraz, lana amaitzen duenean eskaintzen diogu baina berak ez du nahi. Kasu honetan, gurasoek kurtsoz igarotzea eskatu dute baina, horretarako heldutasun maila kontuan hartzea ezinbestekoa denez, ikastetxetik hori ez egitea erabaki dugu. Bost urteko haurrari dagokionez, oraindik soilik irakasleen behaketa egin da, beraz, prozesua duela gutxi hasi dugu. Hori dela eta, oso goiz da ezer esateko.

Prestakuntza

6) *Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Prestakuntza jasotzen dugu. Ikasle bat Adimen Gaitasun Handikoa dela jakiten dugunean, nik koordinazio batzar bat prestatu egiten dut, eta bertan ezaugarri orokorrak banatzen ditut. Bilera horretara ikastetxeko profesional guztiak joatea ezinbestekoa da haurraren egoera ulertzeko; izan ere, ume hori identifikatuta badago adi egon behar dira. Baina ikastetxean AGHko haurra ez badago, normalean, ez da horri buruzko formakuntzarik ematen. Formakuntzak egon direnean beti joaten naiz, ardura hori aholkulariek hartzen dugulako. Gero aholkulariok besteei ematen diegu hartu dugun formakuntza.

Uste dut formakuntza gehiago beharko zela arlo guztietan. Aurten gauza berri bat egin dugu, inoiz egin duguna. Aurten bigarren inklusibitate plana publikatu egin da, Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duena; 2019-2023rako plana hain zuzen ere. Bertan,

inklusibitatea bultzatzeko asmoarekin, jarraibide batzuk ematen dira, hau da, azaldu egiten da nola kudeatu behar ditugun Hezkuntza Premia Bereziak aurkeztu dituzten umeak. Gainera, badago atal berezi bat AGHko ikasleak identifikatzeko eta haiei erantzuna emateko. Hau da, aparteko lana hartu behar dugu Adimen Gaitasun Handiko haurrei trataera emateko, inoiz gertatu ez dena. Orain badirudi Eusko Jaurlaritzak nahiko kezkatuta dagoela eta arreta berezia eskaintzen diola gaiari.

Eskolan ematen den trataera

7) Ikastetxean, nola detektatzen dituzte haur hauek?

Haur Hezkuntzakoak badira elementu desberdinak daude. Hemen ikasle batzuk izan ditugu zeinek gurasoak kanpoko diagnostikoarekin etorri direla, hau da, familiak zerbait susmatu du eta gabinete pribatu batera eraman dute haurra, ikastetxean ezer jakin gabe; eta hor, froga batzuen bidez, Adimen Gaitasun Handiko haurra dela detektatu dute.

Hori horrela gertatzen bada gurasoak ikastetxera datoz eta tutorearekin biltzen dira; ondoren tutoreak aholkulariari, niri, informazioa pasatzen dit. Orduan, nik gurasoekin biltzen naiz eta aztertu egiten dugu haiek ekartzen duten informazioa, gehi tutoreak ematen didana. Ikusten badugu horrela izan daitekeela, orduan, familiarekin biltzen gara (Berritzeguneko arduraduna eta ni). Berritzegunek erabakitzen badu Hezkuntza Premia Berezia edo Hezkuntza Laguntzako Premia Berezia duela, bigarren erabakia zerrenda sartzea ala ez izango da. Dena den, nahiz eta zerrendan egon, ez dute inolako laguntza berezirik jasotzen, baina hor daude estadistika baten moduan.

Alderantziz, gerta daiteke: tutorea ikasle horrek gaitasun handiak aurkezten dituela konturatzea, orduan, protokolo berdina jarraitzen da. Tutoreak zergatiaren kontsulta betetzen du eta hori egiten duenean nik protokoloa martxan jartzen dut. Hau da, hainbat irizpide desberdinen arabera, material eta eskalak ezberdinak pasatzen dizkiot tutoreari behaketa sakon bat egiteko. Batzuetan, ez diot soilik tutoreari pasatzen baizik eta ikaslearekin lan egiten duten beste profesional batzuei ere eskalak pasatzen dizkiet haiek ere behaketa hori egiteko; hala ere, nik ere gelara sartzen naiz. Eskala edo item horiek betetzen dituztenean koordinazio batzar bat egiten dugu. Ondoren, nik txosten bat egiten dut, Berritzeguneko pertsonari komentatzen diot eta hark erabakitzen badu AGHko haurra izan daitekeela orduan behaketa egiten dio.

Baina behaketa hori egiteko gurasoek dokumentu berezi bat sinatu behar dute; gurasoek dokumentu hori ez badute sinatu nahi eskola mailan geratzen da eta bere espedientean geratzen da, baina ez da esku-hartze gehiagorik egiten. Hasieran, guraso batzuek ez dute nahi haien seme-alabak diagnostiko bat izatea, baina ikusten dutenean haurra nagusiagoa dela, eta eskolan aspertzen dela, kezkatzen dira, eta ikastetxeari esaten diote ez dutela ezer berezirik nahi baina ea aparteko materiala eman ahal dioten.

8) *Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)*

Curriculum aherastea edota kurtsoz igarotzea aukera bat izan daiteke. Horretarako, Curriculumean agertzen diren kompetentziak kontuan hartzen ditugu eta horren arabera erabakitzen dugu zer motatako lana eskainiko diogun. Adibidez “pentsateka”, hau da, edozein motatako materiala dago; material hori maila altuko gaitasunak lantzeko erabiltzen da, jokoak, ordenagailua... eta hainbat elementu desberdin erabiltzen dira. Normalean gela bakoitzaren atzeko aldean jartzen da. Beraz, lanak amaitzen dituen “pentsateka” horretara joan daiteke. Txoko horretan haurrek erregistro bat eraman behar dute (“pentsateka” horretan erabili ahal diren materialak erakutsi dizkit, baita Interneten non begiratu ere: Berrigazteiz-agh-pentsateka).

Bestalde, proiektuak lan egin daiteke. Proiektuek bai bakarkako bai taldeko lana ahalbidetzen dutelako, eta umeari gaitasunak garatzeko aukera ematen diozu baita horiek islatzeko ere. Hau da, aukera ematen diozu ikasle horri proiektuen bidez, pentsatzen duena, kudeatzen duena, ulertzen duena... bere erara islatzeko. Eta ikusten duzu era desberdinak erabiltzen dituela hori azaltzeko edo ulertzeko.

Taldeko proiektuak egiterakoan nork bere papera hartu du, berak bere papera hartu behar du, eta laguntzaile ona izan daiteke ondo kudeatzen bada. Ondo kudeatzen ez bada batzuetan arazoak sortzen dituzte, uste dutelako besteen gainetik daudela eta agindu ahal dutela.

Dena den, nik uste dut proiektuak lan egiteko umeei gaitasun batzuk izan behar dituztela, hau da, trebeak izan behar dira. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan irakurketa-idazketa ez dute oso ondo menperatzen, batez ere ulermen maila, beraz, nik uste dut hor ezin dela proiektuak lan egin. Hortaz, laugarren, bosgarren eta seigarren mailan posiblea izango litzateke gaitasun batzuk eskuratu dituztelako, hau da, ulermena garatu dute eta haiek kapazak dira beste era batean adierazteko.

Bestalde, Haur Hezkuntzan proiektuak lan egiteko irakasle oso trebeak behar dira, haurrek oinarritzko gaitasunak lortzeko; baina posiblea da.

Talde elkarreragileak Bigarren Hezkuntzan erabili ahal dira, taldeka lana egiten dutelako eta nork bere lana egin behar du taldearen arrakasta lortzeko asmoz. Maila ezberdinetako helburuak lantzeko aukera ematen du, beraz, ikasleak noraino heldu ahal diren ikusteko aukera ematen dizu.

Aipatutakoak niri asko gustatzen zaizkit, baina batez ere besteekiko harremanak bultzatzen dituztelako, eta normalean harremanetan arazoak dituztenez metodologia hauek lagungarriak izan daitezke. Gainera, metodo hauetan haurren motibazioak, interesak, beharrak... kontuan hartzen dira.

9) *Nork esku-hartzen du ikasle hauekin?*

Tutoreak, familiak, Berritzeguneak, irakasleek (hori imajinatzen da) eta nik (aholkularia) esku-hartzen dugu. Ikasle hauek ez dute ezohiko errekurtsio pertsonalik, ez dagokie ez PTrik, ez hezitailerik... ez inor, hau da, ez dute ezohiko laguntzarik jasotzen.

10) *Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?*

Bai. Orokorren, oso familia konplikatuak dira, oso exigentzia maila altua eskatzen digutelako. Guk beti batzar bat izaten dugu kurtso hasieran esku-hartzea aurkezteko asmoarekin eta gero ebaluazio bakoitzean tutorearekin batzarra dute. Baina normalki guraso hauen exigentzia maila oso altua da, beti etortzen dira esateko bere seme-alaba aspertzen dela, bere seme-alaba pozik ez dagoela... Familiek aspektu horretan arreta jartzen dute eta beti ahaztu egiten zaie euren seme-alabak umeak direla eta ere behar emozional eta afektibo batzuk dituztela. Beraz, kurtsoz igarotzea eskatzen digutenean, ez dute pentsatzen gizarte mailan, heldutasun mailan, egoera afektibo eta emozionalean... eta hori da guk pentsatzen dugun lehenengo aspektua.

Batzuetan familiak ere identifikatzen du.

11) Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiola hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?

Datorren ikasturteari begira, inklusibitate bigarren plan honekin, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei arreta eman behar diogula jartzen du, baita trataera hori gela barruan izan behar dela ere; honek errekurtsio asko izatea suposatzen du. Ezin ditugu umeak laguntza gela batera eraman ez bada arrazoi handi batengatik; adibidez, garapen pertsonala lantzen zaudelako. Hala ere, duela 5-6 urte ume hauetaz hitz egiten hasi da.

Hala ere esan dezaket, hezkuntza-laguntza berezia duten ikasleen artean ez zaiela arreta berdina eskaintzen guztiei, hau da, errekurtsioen aldetik nahiko eskas gabilta eta baliabide horiek ez daude AGHko haurrei zuzenduta. Nik ikusten dut gero eta zailtasun gehiago ditugula egoera ezberdinei aurre egiteko. Egia da jarraibide berrien arabera tutorea protagonista inportantena dela, eta PTtak bigarren mailakoak direla. Baina, nire ustez, ez dute behar duten arretarik jasotzen.

12) Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?

Nire ustez, talde batean Hezkuntza Premia Berezia, ikasteko zailtasunak edo AGHko haurrak dituzten ikasleen kasuan, gela horretan bi irakasle egon beharko lirateke. Berdin da PT bada, errefortzuko irakaslea, hezitzailea, edo beste irakasle bat; baina hori da ziurtatu beharko genukeena.

Ikastetxean material ugari izan beharko genuke, edozein motatako materiala edozein mailako materiala. Gainera, alde emozionala ezin dugu ahaztu, beraz, aspektu hori hobetu beharko genuke; agian PT batekin lan egitea posible izango litzateke, PTak emozioak eta norberaren erregulazioa garatzeko, indartzeko eta sakontzeko laguntza eskaini ahal dielako.

Hamargarren elkarrizketatua

Aholkularia. 27 urte. 2 urte hezkuntzan lan egiten.

Identifikazioa

1) *Goiztiartasuna, talentua eta talentu aparteko terminoak ezberdintzen dakizu?*

Unibertsitatean ez dakit eman genuen, ez dut gogoratzen, baina dokumentu batean irakurri nuen eta orduan badakit termino horiek desberdintzen, beno gutxi gora-behera. Izan ere, guk Adimen Gaitasun Handiko haurrak deitzen diegu guztiei, orduan, termino horiek ez ditugu asko erabiltzen.

Nik esango nuke goiztiartasunean, garapena lehenago ikusten duzula. Talentua, berriz, errendimendu altua duela arlo batean, ez guztietan; eta talentu apartekoa edo superdotadoak adimen osoa duena, hau da, arlo guztietan ona dena.

2) *Identifikazio goiztiarra garrantzitsua da? Ze adinetan identifikatu daiteke?*

Nire ustez bai, baina oso zaila da. Hala ere, gero ez ditugu laguntzarik horretarako. Identifikatzea garrantzitsua da zure lana bere beharrianetara moldatzeko. Adinaren kontua ez daukat oso argi, hemen adibidez Haur Hezkuntzan baliteke ume bat izatea. Azkenean gauza horiek ikusten dira baina 2 urterekin uste dut oso zaila dela; agian 4-5 urterekin identifikatu daiteke.

3) *AGHko haur bat identifikatzen jakingo zenuke?*

Berritzeguneko mintegira noa eta honen inguruan mintzatzen gaude. Bertan bideo bat jarri ziguten: urte batzuk daramatzaten irakasle batzuk ziren eta esaten zuten ehuneko ez dakit zenbat AGHko haurrak zirela, “zuk noizbait eduki duzu Adimen Gaitasun Handiko ume bat?”. Gehienok ezetz esan genuen eta beste batzuk 2-3 ume izan zutela esan zuten. Berritzegunekoek ehuneko hori askoz handiagoa izan behar zela esan zuten, hortaz, batzuk identifikatu gabe geratu dira.

Orduan, ez dakit Adimen Gaitasun Handiko haur bat identifikatzen jakingo nukeen, zaila delako. Egia da, gauza batzuk ikusi ahal dituzula, gainera batzuetan badirudi bide okerrean daudela eta emozioen aldetik nahiko txarto dabilzateela. Beraz, identifikatzen saiatu ahal zara eta datuak jaso, familiarekin hitz egin... eta prozesua jarraitu.

4) *AGHko haurren ezaugarriak zeintzuk diren badakizu? Edo ez jakitekotan badakizu non kontsultatu?*

Haien ezaugarriak zeintzuk diren ez dakizkit, baina badakit non begiratu; zehatzago esanda, 2013ko otsailaren 1ean argitaratutako Hezkuntza Orientabideak Adimen Gaitasun Handiko ikasleen dokumentuan. Bertan ezaugarriak zeintzuk diren agertzen dira. Hala ere, uste dut, esperientzia ere garrantzitsua izango dela ezaugarriak ikasten joateko.

5) *Adimen Gaitasun Handiko haur bat izan duzu ikasgelan?*

Aurten kasu bat daukagu, baina nik ez nuen bideratu. Orain dela 2 urte bideratu zen edo behintzat saiatu zen bideratzen (ni ez nengoen eskola honetan). Aholkulariak eginbeharreko bidea egin zuen, hau da, Berritzegunera deitu, familiari esan... Baina hor gelditu zen, familiak ez zuelako pediatrara eraman, orduan, UPIra ez ziren heldu. Gero hurrengo urtean haiek psikologoarengana joan ziren eta psikologoak hauteman zuen. Hori bazegoen bidean baina azkenean hor geratu zen gurasoek ez zutelako nahi, izan ere, gurasoek ezetz esaten badute ezin da aurrera jarraitu.

Prestakuntza

6) *Zer laguntza daude detekziorako: prestakuntza, baliabide pertsonalak eta materialak.*

Ez dute laguntzarik ematen eta beharrezkoa da. Orain dela gutxi honen inguruan hitz egiten hasi da, lehen, pentsatzen zen oso argiak zirela eta beraiek bakarrik aurrera egiten zutela, hau da, bere bidea egiten zutela. Laguntzak Hezkuntza Behar Bereziak dituzten ikasleengan zentratzen ziren. Orain, garrantzi gehiago ematen ari zaio baina oraindik ez dauka laguntzarik.

Nik orain dela urte batzuk unibertsitatea utzi nuela eta horren inguruan ez nuen prestakuntzarik jaso. Ni, Berritzegunean aholkulari mintegian nago eta orientabide batzuk ematen dizkigute eta normalean material bat prestatzen dugu. Aurten prestatutako materiala AGHko haurren inguruan da, orduan, orain matematikako arloaren inguruan zer egin dezakegun begiratzen gaude; adibidez, “pentsateka” dago, zeinetan jolasak dauden, bai Lehen Hezkuntzarako bai Haur Hezkuntzarako. Guk adibidez Haur Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloa banatu ditugu, eta horren inguruan materialak bilatzen gaude baita haien ezaugarriak arakatzen ere.

Beraz, hori prestakuntza bezala har dezaket; dena den, prestakuntza gehiago beharko zen arlo guztietan. Eskerrak, normalean, dokumentuak daudela eta horiek irakurtzen dituzu, baina zure kabuz. Daukagun prestakuntza ez da nahikoa. Adibidez, unibertsitatean guk bageneukan ikasgai batzuk gure ustez kendu beharrekoak mamirik ez zutelako, eta oinarrizko beste kontzeptu batzuk ez ziren lantzen.

Prest Garako prestakuntza dago zure kabuz egin dezakezuna, eskola batzuetan formakuntzak egoten dira... Kasu berezi batzuk eskolan badaude zuzendari taldeak horren inguruan formakuntza eskatu dezake; baina, AGHko haurrak ez badaude ez da horrelako prestakuntzarik egiten. Hala ere, nahiz eta AGHko haur bezala identifikatua egon, ez dute laguntza apartekorik jasotzen.

Eskolan ematen den trataera

7) Ikastetxean, nola detektatzen dituzte haur hauek?

Ikastetxeak ez ditu laguntzarik jasotzen, hau da, Hezkuntza Premia Berezitik at dago. Beno, badago Hezkuntza Premia Berezietan sartuta baina ez dago zerrendan. Egia da, zerrendetan sartu dezakezula baina ez dauka PT laguntzarik, orduan, eskolako barne antolaketa egin behar da. Horretarako, ikasketaburuak eta zuzendaritza taldeak ikusi behar du ea beste irakasle bat libre dagoen. Gero talde kooperatiboak sortu, jarduera osagarriak eman... Baina azkenean eskolako antolaketa da eta ahal duzuna egiten duzu.

Kasu hauetan gainontzeko kasuetan bezala egiten da, lehenengo tutoreak behaketa egiten du eta ostean nik (aholkularia) behar dituen eskalak edo materialak pasatzen dizkiot kalitatezko behaketa egin ahal izateko. Horrez gain, ni ere gelara sartzen naiz ume hori behatzera. Eskuratutako informazioarekin gurasoekin hitz egiten dut eta haiek ebaluazio psikopedagogikoa sinatzen badute nik Berritzegunera deitzen dut.

Berritzegunera deitzea erabakitzen bada, hango aholkularia eskolara etortzen da eta haur horri froga batzuk pasatzen dizkio. Froga horien emaitzak gurasoekin partekatzen dira eta denon artean erabaki egiten dugu zelan kudeatu eta nola eskuhartu. Hala ere, lehen esan dudan moduan, gurasoek ez badute nahi, guk ezin dugu egin, hori familiaren erabakia delako.

Familiak detektatzen badu, prozesua antzekoa izango litzateke. Hau da, normalean kanpoko zerbitzuetara joaten dira hor detektatzeko, ondoren familiak tutorearekin hitz egiten du eta tutoreak nirekin (aholkulariarekin).

8) *Nola esku-hartzen duzue? (metodologia, estrategiak)*

Ezin dena egin da beste eduki batzuk eman baizik eta zabalagoak; adibidez, berak dinosaurioen gaia gustuko badu, zuk gelan dinosaurioen oinarrizko informazioa emango duzu (dinosaurioen garaia), eta berak, nahi badu, gehiago ikertu dezake eta eduki zabalagoak aztertu.

Gero, adibidez, gelan zerbait egin behar dute eta AGHko haurrak hori egingo du eta nahi izatekotan, hori amaitu ostean beste aukera batzuk eman behar dizkiogu. Baina aukera hori guztiontzat izango da ez bakarrik Adimen Gaitasun Handiko haurrentzat. Suposatzen da ikasle horrek bere lana amaitzen badu zerbait egiteko aukera izan behar duela. Ekintza horiek pentsatu eta bideratu behar dira ez da bakarrik haurrari liburu bat ematea.

Beraz, proiektuak edo talde elkarreagileak egokiak izan daitezke haur hauen gaitasunak era integralean garatzeko. Baina ez bakarrik bi estrategia hauek baizik eta haur hauen gaitasunak, interesak, beharrak, motibazioak... asetzen dituen edozein estrategia. Hots, AGHko haur batentzat erabilgarria dena ez da denentzat erabilgarria izango, frogak egin behar ditugu.

9) *Nork esku-hartzen du ikasle hauekin?*

Eskolako barne antolaketa da, normalean, esaten da ikasle hori guztiona dela baina erantzukizun handiena duena tutorea da; hala ere, ez da tutorearen ikaslea baizik eta eskola guztiko ikasleak dira.

Egia da tutorearekin ordu gehiago egongo dela baina eskola berrantolatu behar da eta adibidez nik (aholkularia) saio bat libre baldin badaukat gelan sartu eta lagundu dezaket; hori da hemen egiten duguna. Azkenean guztiok lagundu behar dugu, guztion ardura delako. Dena den, errealitatean tutoreak erantzukizun handia dauka. Horrez gain, Berritzeguneak ere parte hartzen du baita familia ere.

10) *Ikastetxea familiarekin elkarlanean aritzen da? Familiak detekzioan laguntzen du?*

Familia umearekin dago ordu asko, beraz, beste ikuspuntu bat dute eta beste arlo batzuk lantzen dituzte haiekin; orduan, haien informazioa oso garrantzitsua da zuk gauza guztietan ezin zarelako sartu.

Badaude bide ezberdinak. Tutoreak zerbait ikusten badu aholkulariari esaten dio eta aholkularia gelara doa ikustera; zerbait ikusten badu orduan, familiarengana doa eta familiak ebaluazio psikopedagogikoa sinatu behar du. Ebaluazioa sinatzen baldin

badu Berritzeguneko pertsona bat dator eta haurrari froga batzuk pasatzera. Froga guztiak ezin baditu pasatu, beste txosten bat egiten da eta pediatarrengana deribatzen da. Pediatrak nora deribatu begiratzen du, Centro De Salud Mental, neurologo...

Beste bidea familia detektatzea da, orduan, familia zuregana etortzen da eta komentatzen dizu uste duela bere seme-alabak ezaugarri berezi batzuk dituela, hortaz, eskolatik erne egoten gara. Azkenean bi aldeetatik identifikatu daiteke; beraz, bi noranzko informazioa egotea funtsezkoa da.

11) Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen artean, uste duzu arreta berdina eskaintzen zaiola hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei (adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektrorik autistaren nahasmenduak, jokabide-arazo larriak, desgaitasun anitzak), ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta AGHk dituzten ikasleei?

Ez, arreta eta laguntza beti jarri da helburuetara eta edukietara heltzen ez ziren ikasleengan. Orain, gauzak aldatzen ari dira, baina batzuk horren kontran daude eta beste batzuk alde.

Azkenean, ume bereziak dira, ezaugarri ezberdinak dituzte, ezagutu behar dituzu eta hori abiapuntua izanda lantzen hasi behar zara, baina ez "A" edo "B" duelako, baizik eta ikasle guztiak ezberdinak direlako; baina hori errealitatean oso zaila da.

Nire ustez ez ditugu etiketak begiratu behar hurrek laguntza jasotzeko. Izan ere, hemen Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailakoak batera daude, baina ez daude bakarrik bi maila ezberdin, hots, bi maila horren tartean ere maila eta behar ezberdinak daude. Adibidez, gelara sartzen zara eta badakizu batzuk ez dakitela irakurtzen, beste batzuk bai, beste batzuk oso ondo... eta ez dira Hezkuntza Premia Bereziak direlako baizik eta oraindik gaitasun hori garatu ez duelako, beraz, guztiontzat moldatu behar duzu eta hori ez da batere erraza.

12) Nola hobetu daiteke AGHko ikasleei ematen zaien erantzuna?

Hasteko, prestakuntza behar dugu, izan ere, prestakuntza barik ezin dituzu ez jarraibiderik ez orientabiderik eskaini. Orduan, lehenengo teoria edo dokumentazioa ezagutu behar dugu eta gero saiakuntzak egin; hots, ikasle horrentzako egokia izango dena beste batentzat ez da egokia izango, haur guztiak ezberdinak direlako naiz eta AGHko haurrak izan.